

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**  
**Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación**

Zientzia Politikoak eta Kudeaketa Publikoa  
2016-2017 IKASTURTEA

# Europako Alderdi Sozialdemokraten Krisia

EGILEA: Urdax Bañuelos Ruiz de Erentxun  
ZUZENDARIA: Asier Blas Mendoza

Data, 2017eko maiatzaren 30a



## Aurkibidea

---

1.SARRERA.....	5
2. MARKO TEORIKOA.....	6
2.1. Sozialdemokrazia.....	6
2.2.Menpeko aldagaiak:.....	10
2.3. Aldagai Independentiak .....	13
2.3.1 Politikak eta Jarduna .....	13
2.3.2. Alderdi sozialdemokraten barne egitura.....	17
2.3.3. Europa integrazio eta globalizazio prozesuak .....	19
2.3.4. Hauteskunde sistemak .....	23
3.ATAL ENPIRIKOA .....	29
3.1. Menpeko aldagaiak.....	29
3.1.1.Espainia .....	30
3.1.2. Grezia .....	31
3.1.3. Britainia Handia .....	33
3.1.4. Alemania .....	35
3.2.Aldagai Independentiak .....	38
3.2.1.Politikak eta jarduna.....	38
3.2.2..Alderdien Barne egitura .....	43
3.2.3. Europa integrazioa, globalizazioa eta krisi ekonomikoa .....	46
3.2.4. Hauteskunde sistemak .....	51
4.ONDORIOAK .....	54
BIBLIOGRAFIA .....	57
-Liburuak .....	57
-Artikulu akademikoak eta Txosten teknikoak .....	58
-Artikuluak.....	58
-Youtube .....	62
-Webguneak.....	62



## 1.SARRERA

---

Gradu Amaierako Lanaren gaia aukeratzeko garaia iritsi zenean, duda asko izan nituen hasieran, nahiz eta argi izan gaurkotasunezko gai bat landu nahi nuela. Horrela, gaia aukeratzeko orduan munduak bizi zuen garaia erabakigarri izan zen. Komunikabidetan behin eta berriz hauteskunde desberdinak ageri ziren; pare bat hilabete lehen Espainiakoak, momentuan AEB-etakoak genituen begi artean eta urte erdira Frantziak eta Alemaniak bereak izango zituzten. Emaidza eta inkesta askoren artean, hamaika aldiz galdera berdinerira iristen nintzen; nola da posible alderdi sozialdemokratak hain txarto egotea? Halatan, lana horretan oinarrituko nuela erabaki nuen, sozialdemokraziaren krisi egoeran.

Hortaz, jorratuko dugun gaia alderdi sozialdemokrata europarren krisia edo osasun txarra izango da. Horretarako sozialdemokrazian kokatzen diren lau alderdi politiko aukeratu ditugu; bi Ipar European kokatzen dira, Alemaniako SPD eta Erresuma Batuko Alderdi Laborista eta Hego European beste bi, Espainiar Estatuko PSOE eta Greziako PASOK.

Lehenik eta behin, sozialdemokrazia zer den ikusiko dugu. Noiz sortu eta zergatik eratu zen, eta historian zehar zein inportantzia izan duen. Honek ikuspegi orokor bat eskainiko digu, egungo sozialdemokrazia ulertzeko ezinbestekoa den irudi bat emango diguna. Bestetik, sozialdemokraziaren gaur egungo krisia neurtuko dugu, horretarako bost adierazle erabiliko ditugularik. Adierazleak hauek dira: hauteskunde emaitzak, estatu gobernuetan boterea izatea, alderdien afiliatu kopuruaren bilakaera, ezker alderdien erreferentzia diren eta *challenger party-en* agerpena. Azterketa individuala izango da, gero konparaketa bat egiteko, aipatutako krisia neurtzeko helburuarekin.

Bukatzeko, eta dudarik gabe lanaren atal inportanteena, Europako alderdi sozialdemokraten egoera kaxkarra azalduko diguten aldagai independenteak jorratuko ditugu, guztira lau direnak. Sozialdemokraziak aurrera eraman dituen politikak eta jarduna dira aurrenekoa; bigarrena, alderdien barnean eratu den establishment-a eta elitismoa; hirugarren aldagaia Europako integrazio, globalizazioa eta krisi ekonomiko prozesu desberdinak izango dira eta amaitzeko, herrialde bakoitzeko hauteskunde sistema da landuko dugun azkeneko aldagaia. Aldagai independente bakoitzak sozialdemokraziaren krisian zeresan bat izango du, norberak osasun kaxkarrean lagundu ala kontrakoa efektua eragingo duelako.

## 2. MARKO TEORIKOA

---

### 2.1. Sozialdemokrazia

---

Gure lanaren bigarren atal honetan, lehenik eta behin gai nagusian ageri diren bi kontzeptu azaldu eta aztertuko ditugu. Gogoratzen baldin badugu, gure lana premisa eta diagnostiko batetik hasten da; alegia, Europako alderdi sozialdemokratak<sup>1</sup> krisi edo osasun txarreko egoera batean murgilduta daudela. Hortaz, aurreneko momentu honetan alde batetik sozialdemokrazia eta bestetik osasun txar hori ikusiko ditugu, beharrezkoa delako hasieratik kontzeptu horiek ulertzea eta lantzea. Bigarrenik, egoera txar horren zergatiak bilatu nahian, zenbait aldagai esplikatzaile aztertuko ditugu, gure hipotesiaren arabera aldagai independente hauek gaur egun alderdi sozialdemokratek bizi duten krisia azaltzen lagunduko digutelako.

Esan bezala, aurreneko urratsa sozialdemokrazia ikustea izango da. Sozialdemokrazia, XIX. mendean langile mugimendu alemaniarren barruan sortzen den korrante politikoa da, zehazki SPD<sup>2</sup> alderdian eta Eduard Bernstein aitetako bat duelarik. Hasieran oso gaizki ikusia egon zen korrante hau, eta oso kritikatu eta baztertua izan zen. Halaber, 1889.urtean II Internazionala eraiki zen, langile mugimenduen alderdiak batu zituen lehen erakunde internazionala. Langile mugimendua indartze bidean zegoen, batez ere SPD-k Alemanian, eta 1873ko krisi ekonomikoak ez zuen ahuldaderik produzitu langileengan. Are gehiago, erosmen ahalmenean proletalgoa hobekuntza jaso zuen eta bestetik instituzioetan apurka errepresentazio handiagoa lortzen hasiak ziren<sup>3</sup>.

Alemaniko langile mugimenduaren ahalduentze prozesu honek berebiziko inportantzia izan zuen Bernsteinentzat. Izan ere, XIX. mendearen amaieran hauteskunde boto guztien laurden bat izateak (lege kanporatze prozesuak jasan arren) bereziki arduratu zuen. Gauzak horrela, 1896.urtean argitaratutako artikulua batean<sup>4</sup> SPD-k Reich-ean (Alemaniako Parlamentuan) nolabaiteko ardura bat zuela aipatu zuen.

---

<sup>1</sup> Gure lanak Europako lau herrialdeen lau alderdi sozialdemokratak izango ditu ikergai. Espainiako PSOE, Greziako PASOK, Erresuma Batuko Alderdi Laborista eta Alemaniako SPD.

<sup>2</sup> *Sozialdemokratische Partei Deutschlands* (SPD) 1875.urtean Gothako Kongresuan sortutako langile arderdia da. Alemaniako Langileen Elkarte Orokorren (ADAV) eta Alemaniako Langileen Alderdi Sozialdemokrataren (SDAP) arteko fusio baten ondorioz. Marx eta Engelsek alderdi berri honen programa sutsuki kritikatu zuten.

<sup>3</sup> Paramio, Ludolfo (2012). *La Socialdemocracia maniatada*. Madrid: La Catarata.. 23-39

<sup>4</sup> Kolonialismoa buruzko artikulua bat izan zen. Bertan, besteak beste, langileria bere nazioari leialak izan behar zirela zion. Bernstein, Eduard (1896). *German social democracy and the Turkish troubles*.

Kausa justua denean, sozialistak gobernua babestu behar zuten. Ideia hau bere teoriaren hastapenak izango ziren.

Hiru urte geroago, Bernsteinek bere obrarik esanguratsuen idatzi zuen, *Las precondiciones del socialismo* (1889), non bere ideiak eta haiek suposatzen zuten errebisionismoa erabat agerian geratu zituen. Bertan, kapitalismoaren kolapsoaren etorreraren buruzko dudak mahaia gainean jarri zituen. Etorkizun motzean gutxienez kolapso hori ez zela gertatuko uste zuen, marxista gehienak bai aurreikusten eta teorizatzen zuten moduan. Hortaz, horren aurrean zera proposatu zuen: demokrazia liberala erabili sozialismoa ezartzeko<sup>5</sup>. Demokraziaren defendatzaile moduan agertu zen eta demokrazia, sozialismoa eratzeko medio eta jomuga bezala kontsideratzen zuen. Horrela, sufragio unibertsalaren eta Estatuaren konkistekin kapitalismoaren transformazio gradual bat egongo zen sozialismora ailegatzeko<sup>6</sup>. Gainera, gehien garatutako herrialdeak proletalgoaren diktadurarentzat prest ez zeudela uste zuen, eta etorkizuna bestelako alderdiekin elkarlanaz sustatzeaz igaro behar zuela. Ideia hauek iraultza bat ziren urte horietako planteamenduak kontuan izanda eta gehiengo marxistaren kritika zorrotzak iritsi zitzaizkion. Rosa Luxemburgok oportunistak bat zela aurpegiaratu zion eta Vladimir I. Leninek, aldiz, traidore bat zela. Bernsteinek lerro politiko argi bat defendatzen hasi zen, gerora inplementatu egingo dena; klase alderdi ortodoxo baten ideien kontra eta burgesia liberalarekin aliantzak eratzeko ideien alde<sup>7</sup>.

Bernsteinen pentsamendu honek marxismoan haustura inportantea suposatu zuten, 1869an SPD-rekin hasita alderdi sozialistak eratzen hasi zirenik aurreneko krisia. Ideologo honen ideiak hasiera hasieratik baztertuak eta gaitzetsiak izan ziren, baina haien influentzia izugarria izan eta izango zen alderdi sozialistetan. Nahiz eta hasiera batetan aho batez postulatu hauek errefusatu ziren, apurka hedatuz joan ziren nazioarteko sozialismoan eta militanteen pentsamoldetan. Sozialdemokraziaren hazi horri denbora asko kostatu zitzaion haztea, baina Gothern SPD-a jaio eta 84 urte geroago, Bad Godesberg-eko kongresuan (1959), behin betiko marxismoa ezabatuko da programatik.

Dena den, Godesbergeko Kongresua baino lehen hainbat gertakari inportante gertatu ziren oso garrantzitsuak direnak sozialdemokraziaren historia ulertzeko. Oraingoan 1914ean kokatzen gara, SPD-k Europako beste hainbat alderdi sozialistekin batera (frantsesa esaterako) Lehen Mundu Gerrako kreditu bereziak onartu zituen

---

<sup>5</sup> Basave, Agustin (2015). *La cuarta socialdemocracia. Dos crisis y una esperanza*. España: La Catarata. 33-43 orrialdeak.

<sup>6</sup> Guillamon, Agustin (2016). *Socialdemocracia*. [Alasbarricadas.org]. 2016-11-02. Sarean: <http://www.alasbarricadas.org/noticias/node/37329>. [Kontsulta-data: 2017-05-16]

<sup>7</sup> Mulholland, Marc (2016). *Cuando Bernstein revisó la "ortodoxia" marxista*. [Sinpermiso.info]. 2016-10-07. Sarean: <http://www.sinpermiso.info/textos/cuando-berstein-reviso-la-ortodoxia-marxista>. [Kontsulta-data: 2017-05-16].

urtean hain zuzen. Erabaki honek XX .mendean sozialismoaren hausturarik inportanteena eragin zuen. Gauzak horrela, internazional sozialistan banaketa eta II.Internazionalaren amaiera etorri zen. Bi bando eratu ziren, alde batetik pentsamendu erradikalagoak zituztenak edota aurrerantzean komunistak izango zirenak eta beste alde batetik alderdi zaharretan mantendu zirenak, sozialdemokratak kasu. Rosa Luxemburgok 1916an *La crisis de la socialdemocracia* idatziko zuen, kredituen onartzearen erabaki hori salatuz. Bera eta beste askok erabaki hori traizio bat bezala ikusi zuten, langile mugimenduaren internazionalismoa alde batera uzten zuelako eta burgesiaren interes nazionalen men egin ziolako<sup>8</sup>.

Orain arte azaldutako guztia sozialdemokraziaren lehenengo etapan kokatu dezakegu. Autore guztiek hiru etapa daudela onartuko dute, aldiz, adostasun ezak etapa bakoitza nola izendatzean etorriko dira<sup>9</sup>. Guk lan honetan honako klasifikazio hau erabiliko dugu, gure ustez hobekien islatzen duelako epe bakoitzeko nondik norakoak. Lehenengo etapa, XIX. mendearen amaieratik II. Mundu Gerrara arte izango zen eta Integrazio Soziala izenaz ezagutuko dugu. Bigarrenik, sozialdemokraziaren Urrezko Aroa etorriko da II. Mundu Gerra amaitzen denetik munduan 80ko hamarkadan besteak beste Thatcher eta Reaganen eskutik neoliberalismoaren etorrera dagoenean. Azkenik, hirugarren etapa 80ko hamarkadatik gaur egunera iritsiko da, Etsimenduaren etapa.

Sozialdemokraziaren urrezko aroarekin sakonduz, SPDk gidatuko du Europako sozialdemokraziaren norabidea. Hortaz, ezinbestekoa izango da alderdi honek 1959an ospatu zuen Bad Godesberg kongresuaz mintzo egitea. Bertan, marxismoa betirako baztertu zuten, baina ez hori bakarrik, aldaketak sakonagoak izan zirelako. Horrela, langile erakundeen estruktura aldatu eta SPD oinarri zabaleko antolakunde bihurtu zen<sup>10</sup>. Definizio berri bat izan baino, kongresua desideologizazio prozesu bat bihurtu zen<sup>11</sup>. Aldaketa hauek alderdi sozialdemokraten hauteskunde garaipenekin lotu behar dugu ezinbestean. II. Mundu Gerraren ondoren, ezkerreko alderdien botere esku-hartzeak gora egin zuten, baina ez era nahikoan, langile hautesleekin aski ez zutelako gehiengoak lortzeko. Honek, Godesbergen kongresuan praktikara eraman zen moduan, alderdiak klase ertaineko eta burgesia txikiko sektoreetara begiratzera bultzatu zuen.

Hasitako bideari jarraipena eman zitzaien, eta bestelako neurriren artean, alderdi sozialdemokratek pixkanaka eta bakoitzak bere epekin produkzio baliabideen sozializazioari eta proletalgoaren diktadurari uko egin zioten. Bestetik, prozesu hau

---

<sup>8</sup> Urquizu, Ignacio (2016). *La crisis de la socialdemocracia. ¿Qué crisis?*. Madrid: La Catarata.

<sup>9</sup> *Ibid.*, 22-23 orrialdeak

<sup>10</sup> Sierra, Julio (1979). *La transformación de la socialdemocracia alemana desde el abandono del marxismo*. El País. Sarean: [http://elpais.com/diario/1979/11/27/internacional/312505213\\_850215.html](http://elpais.com/diario/1979/11/27/internacional/312505213_850215.html)

<sup>11</sup> Basave, Agustín (2015). *La cuarta socialdemocracia. Dos crisis y una esperanza*. España: La Catarata



ematen zen bitartean, kapitalismoaren *establishment*-ak, komunismoari beldurra medio, Estatuaren interbentzioa onartu egin zen paradigma unibertsal gisa. Keynesianismoari onetsia eman zitzaion, eredu hegemonikoa bihurtuz<sup>12</sup>. Gauzak horrela, 1945etik hogeita hamar urtetan gai sozialetarako gastua BPGren % 5 izatetik %25 izatera pasa zen eta 1950tik 1973ra Europa Mendebaldeko bataz besteko hazkunde ekonomikoa ehuneko 4,81ean kokatu zen.<sup>13</sup>

Sozialdemokraziaren urrezko aroaren bukaerak hainbat faktorek eragin zuten. Basaveren<sup>14</sup> arabera, bost faktore izan ziren horretan ezinbesteko; 1973ko petrolioaren krisia eta bere ondorio ekonomikoak, gizartean zaharkitze prozesuak eragindako osasun eta pentsio sistemak finantzatzeko arazoak, zerga sistemak gizarte segurtasun guztia mantentzen zuela, langile klasearen onura ekonomikoa eta eskuin alderdien promesa faltsuak egoera zailari irtenbidea emateko. Horrela, Erresuma Batuko eta AEBetako gobernu buruetara Margaret Thatcher eta Donald Reagan iritsiko dira, urrenez urren. Haiekin batera, liberalismo politiko eta ekonomikoa bat ekarri zuten, neoliberalismo moduan ezagutzen duguna. Eredu berri bar sortu zuten, besteak beste, ongizate Estatua murriztuz, pribatizazioak zabalduz, arantzelak ezabatuz eta zergen jaitsiera bultzatuz. Keynes-en ordeztuz, Milton Friedman eta Chicagoko eskola izango dira aurrerantzean *mainstream*.

Eredu berri hori hasieran menperatzailea izan zen, baina urteak aurrera joan ahala, bakarra bihurtu zen. Hau da, sozialdemokraziak ere eredu hori onartu egin zuen, haren berezko identitatea galduz. Agintera berriro iritsi zirenean, neoliberalismoaren eredu berri kolokan jarri gabe egin zuten. Horrela, 1990ko hamarkadaren erdialdean, sozialismoaren Hirugarren Bideari edo sozialliberalismoari hasiera eman zioten. Sozialdemokraziaren Hirugarren Bidea, *thatcherismoaren* eta neoliberalismoaren adaptazio irribarretsu bat bakarrik izan da<sup>15</sup>. Thatcherren Altxor Publikoaren kantzilerrak adierazten duen moduan, *thatcherismoaren* benetako garaipena ez da alderdi bat aldatu izana, bi alderdi aldatu baizik<sup>16</sup>. Horren adibide esanguratsuenetarikoa gure lanean aukeratutako bi Europako herrialdetan ditugu (Bill Clinton eta Alderdi Demokrata<sup>17</sup> AEBetan ahaztu gabe), Tony Blair Ingalaterran eta Gerhard Schröder Alemanian.

---

<sup>12</sup> *Ibid.*, 46-49

<sup>13</sup> Sevilla, Jose V. (2011). *El declive de la socialdemocracia*. Barcelona: RBA Libros. 90 orrialdea

<sup>14</sup> Basave, Agustin (2015). *La cuarta socialdemocracia. Dos crisis y una esperanza*. España: La Catarata

<sup>15</sup> Naïr, Sami (2009). *El dilema del socialismo europeo*. [El País]. Artikulu honekin batera, Owen Jones-ek ere ideia hau askotan erabiltzen du bere *Chavs, la demonización de la clase obrera* liburuan.

<sup>16</sup> Jones, Owen (2011). *Chavs. La demonización de la clase obrera*. España: Capitán Swing

<sup>17</sup> Alderdi Demokrata ezin dugu alderdi sozialdemokrata gisa kontsideratu, baina hauteskunde soziologiaren ikuspegitik sozialdemokraziak ordezkatzeko duena ordezkatzeko du AEBtan.

Hirugarren Bidearen inportantzia berebizikoa izan da gaur egungo sozialdemokraziaren egoera ulertzeko. Gogoratu beharra dugu, XX. mendeko azken hamarkadaren erdialdetik XXI. mendeko lehen hamarkadaren erdialdera, gure lanean ikergai diren lau herrialdeetako lehen ministro eta presidentek alderdi sozialdemokratakoak izan direla. Horregatik, ezinbestekoa da prozesu honen nondik norakoetan gehiago sakontzea.

Sozialliberalismoak gobernura iritsi bezain laster TINA<sup>18</sup> ideia erabat onartu egingo zuen. Beraz, azken hamarkadetan aurrera eramandako politika ekonomikoen oinarri nagusiak ez ditu kolokan jarriko. Sozialismoak bere izatearen arrazoi nagusira uko egingo dio: kapitalismoa erregulatu eta aberastasunaren birbanaketa egin desberdintasun sozialak murrizteko<sup>19</sup>. Merkatuentzat erakargarriak izan behar ziren politikak martxan jarri ziren, neurri sozialdemokrata batzuekin nahastuz. Halatan, privatizazioak, desarautzeak, liberalizazioak, gastu publikoan murrizketak eta aberats handientzat zerga murrizketak gobernu sozialdemokraten praxian sartu ziren. Are gehiago, esparru batzuetan sozialliberalismoak neoliberalismoa gailenduko zuen. Adibidez, Tony Blairren *New Labour* Thatcher baino botere gehiago eman zion Ingalaterrako Bankuari, desarautze izugarria eginez bankan<sup>20</sup>. Politika hauek kapital finantzarioaren eta *City*-aren hazkundera funtsezko izan ziren eta 2010erako BPGren %32a izatera pasatu ziren finantzak. Aldiz, sektore industrialaren indarra behera joan zen nabarmen Thatcherrek hasitako politiken ondorio bezala. Urte berean, 2010ean, BPGren %12 bakarrik suposatzen zuen.<sup>21</sup>

Beraz, sozialdemokraziaren ziklo desberdinekin amaitzeko, gaur egungo alderdi sozialdemokratak Hirugarren Bidearen ibilbidearen jarraipen bat da. Gero aztertuko ditugun Europako Integrazio prozesuak eta 2008ko krisi ekonomikoak, bide horri oztopo gehiago ere jarri dizkio. Izan ere, sozialdemokraziaren pilare historiko asko kulunkatzen hasiak dira, besteak beste, Estatu-nazioak oso ahul daude eta klase identitatea beherako joera nabarmena adierazten du<sup>22</sup>.

## 2.2. Menpeko aldagaiak:

---

<sup>18</sup> *There Is Not Alternative (TINA)*, Margaret Thatcherrek ospetsu egindako kontzeptua da.

<sup>19</sup> Rodriguez Aguilera de Prat, Cesareo (2015). *¿Por qué la socialdemocracia decepciona cuando gobierna?*. [Agendapublica.es]. Online; <http://agendapublica.es/por-que-la-socialdemocracia-decepciona-cuando-gobierna/>

<sup>20</sup> Navarro, Vicenç (2010). *La crisis de la socialdemocracia en Europa*. [vnavarro.org] 2010-07-18. Sarean: <http://www.vnavarro.org/?p=13658> . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

<sup>21</sup> Navarro, Vicenç (2010). *El fracaso del nuevo laborismo y del socioliberalismo*. [vnavarro.org]. 2010-05-21. Sarean: <http://www.vnavarro.org/?p=4299> . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

<sup>22</sup> Hillebrand, Ernst (2016). *La crisis de la socialdemocracia europea*. [Nueva Sociedad]. 2016ko urtarrila-otsaila. Sarean: <http://nuso.org/articulo/la-crisis-de-la-socialdemocracia-europea/> . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

Bada, egun sozialdemokraziak bizi duen krisi egoera eta osasun txarrak orain aztertu dugunetik ulertu behar dugu. Dena den, egoera oker horretaz hitz egiten dugunean, zehazki zertan hari garen argitu behar dugu. Horretarako, krisi momentu horren adierazleak ikertuko ditugu.

Lehenik eta behin, **alderdi sozialdemokratek hauteskundeetan babes galtzea daukagu. Hau izango da gure lehen adierazlea.** Greziako, Espainiako, Alemaniako eta Britainia Handiko hauteskunde nagusiak ikertuko ditugu, Europako Parlamenturako egiten direnekin batera. Hauek, atal enpirikoan aztertuko dugun moduan, alderdi sozialdemokratak eta laboristak dekadentzia batean daudela irudikatuko digute, babesen eta botoen etengabeko jaitziera batean murgilduta daudelarik.

Sozialdemokraziaren krisiaren **bigarren adierazlea aztergai diren lau herrialdetan botere egituretan nolako bilakaera izan duten izango da.** Hau da, alderdi politiko hauen partaidetza herrialdearen gobernuetan ikusiko dugu, baita erregio/autonomia erkidegoetan. Inportantzia izango du hemen gobernuetan dauden ala ez eta modu berean nola parte hartzen duten, hots, koalizioan dauden instituzioetan, haiek bakarrik daukaten boterea edota gobernuan parte hartzen ez duten.

**Hirugarren adierazleari dagokionez,** alderdi sozialdemokraten barne egiturara joango gara. **Afiliatuen kopurua erabiliko dugu, iraganean zeukatenarekin konparazio bat egiteko, zenbatean igo ala jaitsi den ikusteko.** Izan ere, sozialdemokraziaren egoera txarra ez da soilik bozketan neurtzen. Afiliatuen kopuruan behera nabarmen egiteak pertsonen konfiantza galera bat adierazten du argi eta garbi.

**Laugarren adierazlean ezker ideologiaren barruan alderdi sozialdemokrata hauen indarra ikusiko dugu.** Alegia, nolako erreferentzia dira ezker segmentu horretan. Beraz, ezker segmentu horretako bestelako alderdien emaitzak ere kontuan hartuko ditugu, ezkerreko ideologia horretako argazki bat eginez. Hori gauzatzeko hauteskunde nagusien emaitzak erabiliko ditugu, eta aurreko hauteskundeekin konparatuz nolako bilakaera dagoen ikusiko dugu. Adibide moduan, Espainian PSOErekin batera, Unidos Podemos, ERC eta EH Bildu aztertu beharko ditugu eta bakoitzaren ezker botoen ehunekoa kalkulatu.

Azkenik, **bosgarren adierazlea** ikustera igaroko gara. Oraingoan alderdi sozialdemokrata klasikoak alde batera utziko ditugu, eta *Challenger Party*-ak aztertzea pasatuko gara. Adierazle honetan arretaz pausatuko gara, alderdi berri hauen jaiotza eta izaera aztertzea komeni delako. Lehenik eta behin, fenomeno hauek zergatik sortzen diren ikustea inportantea da. Hiru faktore erabakigarri<sup>23</sup> daude sorkuntza

---

<sup>23</sup> Hartleb, Florian (2012). *All tomorrow's parties: The changing face of European party politics*. Brussels: CES

honen kausa bezala: alderdi tradizionalen ahuldadea, alderdi hauek bizi duten militantzia galera eta gizarteak alderdi berrien beharra. Azkena garrantzitsua da, gizabanakoen nahiak eta demandak azken hamarkadetan aldatu egin direlako.

Honen aurrean, alderdi tradizionalen erantzuna berandu iritsi da. Historikoki alderdi sistemetan egon diren lau familiak, sozialdemokratak, liberalak, komunistak eta kristau demokratak, beste alderdi batzuen agerpena hesitik ikustera pasa dira, elektoralki oso erakargarriak direnak eta agenda politikoan auzi berriak txertatzeko gaitasun handia dutenak<sup>24</sup>. *Challenger Partyak* jendearekin konektatzea lortu dute, errekurtsio berrien bitartez (batez ere internet eta *mass media*-ren erabileran) haien proiektu berritzailea hedatuz. Bestetik, sistema bakoitzean eman diren aukera politikoak bikain aprobetxatzea jakin dute. Kultura, instituzio eta sozio-ekonomian gertatutako krisiak haien aliatuak bihurtu dituzte<sup>25</sup>. Gainera, alderdi klasikoak ez bezala, haien helburu nagusia ez da beti gobernura iristea. Gure ustez, alderdi berri hauen agerpena alderdi klasikoaren ahuldadearen ondorioz sortzen da. Horregatik, **aztergai diren herrialdeetan alderdi berri hauen agerpenik dagoen ala ez ikusiko dugu, eta agerpen hori zein neurritan eman den.**


Hainbestez, orain arte alderdi sozialdemokraten krisia gure lanaren kontzeptua dela ikusteko aukera izan dugu. Bada, krisi hori neurtzeko helburuarekin bost adierazle nagusi esplikatzen ditugu, egoera txar hori kalkulatzeko aukera emango digutenak. Ondorengo koadroan momentura arte esandakoa modu eskematiko batean ikusteko ahalmena eskaintzen digu, ulermenari laguntzeko:

---

<sup>24</sup> De Vries, Catherine eta Hobolt, Sara (2015). *Challenger parties and the decline of the European left*. [Policy Network]. 2015-12-02. Sarean: [http://www.policy-network.net/pno\\_detail.aspx?ID=5025&title=Challenger+parties+and+the+decline+of+the+European+left](http://www.policy-network.net/pno_detail.aspx?ID=5025&title=Challenger+parties+and+the+decline+of+the+European+left). [Kontsulta-data 2017-05-16].

<sup>25</sup> Hartleb, Florian (2012). *All tomorrow's parties: The changing face of European party politics*. Brussels: CES.

### 1.Kontzeptu mapa



Iturria: Nik neuk egin

### 2.3. Aldagai Independentiak

---

Behin sozialdemokrazia aztertu eta honen krisi egoeraren adierazleak ikusi eta gero, ondorio hauen jaiotzan dauden kausak ikertzera igaroko gara. Izan ere, prozesu hau ulertzeko sozialdemokraziaren situazio kaxkarraren zergatietara jo beharko dugu. Hauek gure lanaren aldagai independenteak osatuko dituzte. Gauzak horrela, lanaren zati honek hiru atal diferente izango ditu. Lehenik eta behin, alderdi sozialdemokratek aurrera eramandako politikak eta jarduera kontutan izango dugu. Hauek nola aldatu diren eta noren mesedetan egiten diren. Bigarrenik, alderdien egitura aldaketaz hitz egingo dugu. Alegia, erakundeen barnean sortutako elitismoa edota masa-alderdia izateari uztea. Ondoren, hirugarren atalean 2008an hasitako krisi ekonomikoak, globalizazioak eta Europako integrazio prozesuak alderdi hauetan sortutako arazoak izango dute inportantzia. Hala ere argitzearen, arazoei baino, problema nagusia arazo hauen aurrean sozialdemokraziatik egituratu ez den alternatiba izango du lehentasuna. Azkenik, azken atalean hauteskunde sistemak aztertuko ditugu. Hortaz, ikergaia ditugun lau herrialdeetara joko dugu, haien hauteskunde sistemak aztertzeko, sozialdemokraziaren osasun txarrean influentzia duten ala ez jakiteko.

#### 2.3.1 Politikak eta Jarduna

---

Orain adierazi bezala, sozialdemokrazia krisi egoera honetan aurkitzearen arrazoiak anitzak dira oso. Askotan pentsatzen da, osasun oker hau bakarrik kanpoko faktoreen ondorioz sortzen direla. Sozialdemokraziak berak badu egoera honen ardura portzentaje bat, eta atal honetan horretan arituko gara. Zehazki, azken urteetan aurrera eramane duen politikak eta jarduna aztertuko dugu, nolako aldaketa eman den ikusteko eta orain komentatutako krisian zein nolako inportantzia maila duen aztertzeko.

Gauzak horrela, sozialdemokraziaren politikak eta jarduna aldaketa sakonak izan ditu, batez ere Urrezko Aroa eta Hirugarren Bidearen osteko garaiak konparatzen baditugu. Zergatik? Ongizate Estatuaren defentsa bigarren plano batean utzi zirelako eta bultzatutako politikak batzuetan ongizate hori kaltetu zutelako. Hamarkadetan zehar, langile klasearen eta klase ertainaren aliantza bat osatu zen, estatuaren oinarria bihurtu zirenak. Langile eta gizarte eskubideak orokortu egin ziren, erosteko ahalmena gora zihuan bitartean. Estatuak politika keynesianoak egiten zituzten, interbentzionismo eta erregulazioak aurrera eramanez<sup>26</sup>. Baina, 80ko hamarkadan neoliberalismoak boterea lortu eta gero, sozialdemokraziak ez ditu politika horiek berreskuratu, nahiz eta berriz ere agintaritzara bueltatu. Beraz, badirudi zeresan handia izan duela sozialdemokraziaren gainbeheran orain aipatutako printzipio eta politikak modu batean baztertzek, sozialdemokrazia bera izateari utzi diolako. Sozialdemokrazia espektro politikan zentroa okupatetik eskuinera mugitu da, kontsensu neoliberal bat hartuz<sup>27</sup>. Modu horretan, Ongizate Estatuaren asistentzia erreminta bat bilakatu da soilik, pobrentzako laguntza ematen duena eta eskusio sozialaren aurka borrokatzen duena. Bada, justizia soziala eta aukera berdintasuna bultzatuz, asistentzia izaerako neurriak ematera pasa da. Hau ezkerrentzat arazo garrantzitsua da, izan ere, ezkertiarren diren hautesleak eskuin tradizionalarena baino gehiago behar dituzte ondasun publikoak eta Estatu indartsu bat<sup>28</sup>.

Sozialdemokraziaren moderazio politiko hau oso eztabaidagarria izan den fenomeno da. Jose María Maravall ikerlariak, prozesu horretan berarentzat erabakigarriak ziren hiru faktore aztertu zituen: alderdi kontserbadore nagusiaren erradikalizazioa, Gobernuaren egondako urteak eta oposizioaren egondako denbora. Haren ustetan, alderdi kontserbadoreak eskumara mugitzean, sozialdemokraziak tarteko boto emailearen bilaketan gertatzen zen, hots, moderazio politikoa gauzatuz. Aldiz, gero eta denbora gehiago oposizioan eta Gobernuaren egotean, mugimendua ezkerreko eskaintzetara izango da. Przewooski eta Spraguek ere alderdi

<sup>26</sup> Navarro, Vicenç (2010). *La crisis de la socialdemocracia en Europa*. [vnavarro.org] 2010-07-18. Sarean: <http://www.vnavarro.org/?p=13658> . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

<sup>27</sup> Basave, Agustín (2015). *La cuarta socialdemocracia. Dos crisis y una esperanza*. España: La Catarata 54-66 orrialdeak

<sup>28</sup> Hillebrand, Ernst (2016). *La crisis de la socialdemocracia europea*. [Nueva Sociedad]. 2016ko urtarrila-otsaila. Sarean: <http://nuso.org/articulo/la-crisis-de-la-socialdemocracia-europea/> . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

sozialdemokraten eboluzio ideologikoa lehia elektoralarekin lotzen dute. Botoen bilaketa eta aliantzen gauzape horretan, ezker politikak baztertzea eragin du<sup>29</sup>.

Honekin oso estuki lotuta, alderdi sozialdemokraten hautesle edo jarraitzaileen oinarriaren eraldaketa dugu. Alderdi hauen politiken aldakuntza diskurtsoan ere eman da, horrela, sozialdemokratak klase ertainari zuzendu dizkio arreta guztiak. Langile klasea, nahiz eta bere hautesleriaren artean inportanteena izan, batez ere historikoki aztertzen badugu, isildua eta alboratua izan da<sup>30</sup>. Diskurtsoetan langile klasearen erreferentziak ezabatuak izan dira erabat. Are gehiago, langile klasea mespretxatu egin da alderdi sozialdemokraten zuzendaritzen aldetik<sup>31</sup>. Beraz, ez da arraroa izan langile klaseak sozialdemokraziari babesa kentzeak eta bestelako aukera politikoak besarkatzea.

Orduan, alderdi sozialdemokraten politikak nora bideratu eta zuzendu diren galdera oso aproposa dugu. Honetan, jarduera eta analisi kulturalak hartu dute protagonismoa. Hau da, generoa, kultura, ekologismo, identitate eta etnia kontuak bilakatu dira sozialdemokraziaren politiken xedea, langile klasearen segmentu ahulenak abandonatu diren bitartean<sup>32</sup>. Basavek<sup>33</sup> adierazten duen moduan, gai horiek moralitate sozialekoak, ingurumenekoak eta batzuetan kanpo politikakoak izan dira. Honek ez du esan nahi emakumeen eta homosexualen aldeko politikak ez diren inportanteak eta ez diren aurrera eraman behar. Arazoa agertzen da eskuin kontserbadoretik mota honetako politikak direnean diferentzia bakarra<sup>34</sup>. Hau azken urteetan gertatu den problema dugu. Alderdi sozialdemokratak erabat zentratu dira politika hauetan, Ongizate Estatuaren eta justizia sozialaren aldekoak alde batera utziz. Gainera, azkenaldian hau arrisku bat bihurtu da egungo sozialdemokraziaren identitate politikoarentzako, izan ere, eskuineko alderdi askok (batez ere erlijio influentzia murrizta dutenak) pixkanaka politika eta agenda posmaterialista hauek txertatu dituzten haien programetan.

---

<sup>29</sup> Urquizu, Ignacio (2016). *La crisis de la socialdemocracia. ¿Qué crisis?*. Madrid: La Catarata. 51-57.

<sup>30</sup> Hau oso argia da azken urteotan, non langile klasea izendatzeko kontzeptu berriak eratu eta sortu diren. Hala nola; *precariado, clase media establecida, nuevos trabajadores pudientes...* Hau Romero, Ricardo eta Tirado, Arantxa (2016) *La clase obrera no va al paraíso* liburuan azaltzen da, 35-39.

<sup>31</sup> Jones, Owen (2011). *Chavs. La demonización de la clase obrera*. España: Capitán Swing

<sup>32</sup> Garzón, Alberto (2016). *¡Digamos adiós a la izquierda pija!*. [Eldiario.es]. 2016-11-12. Sarean: [http://www.eldiario.es/tribunaabierta/Digamos-adios-izquierda-pija\\_6\\_579602050.html](http://www.eldiario.es/tribunaabierta/Digamos-adios-izquierda-pija_6_579602050.html) . [Kontsulta-Data: 2017-05-16].

<sup>33</sup> Basave, Agustin (2015). *La cuarta socialdemocracia. Dos crisis y una esperanza*. España: La Catarata

<sup>34</sup> Rodríguez Prieto, Rafael (2012). *De la socialdemocracia al socialliberalismo. La socialdemocracia en la encrucijada: declive, renuncias y alternativas*. [Agendapublica.es]. 2015-05-28. Sarean: <http://agendapublica.es/por-que-la-socialdemocracia-decepciona-cuando-gobierna/> . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

Dena den, egoera honen arduraren guztia alderdi sozialdemokratei egotea ez da egokia, haien politikekin batera aldakuntza gehiago gertatu direlako. Azken hamarkadetan, gizarte klaseen estrukturan aldaketa sakon eta aipagarriak eman dira. Langile klase zahar industrialak kohesioa galdu egin du dibertsifikazio sozio-laborala gora egin duen bitartean<sup>35</sup>. Honek esan nahi du sozialdemokraziaren oinarria ziren “lepo urdineko” langileak lan munduan influentzia eta garrantzia galtzen hasiak direla, edo gutxienez ez direla 80ko hamarkadetan bezala sektore hain erabakigarri bat. Lehen enpleguak egonkorrak ziren, enpresa-gune handiagoak existitzen ziren non jendea bertan bizi zen eta pertsonak elkarren artean ezagutzen ziren. Horrela, sozializazio bat gertatzen zen lana eta enpresa nukleoa izanda, eta komunitateak sortzen ziren, ideologizaziorako aukera handiak eskaintzen zituenak.

Halaber, aldaketa sozial eta kultural hauekin batera, komunikazio politikoan ikus-entzunezko bitartekarien inportantzia gora egin du, alderdiarekin identifikazio garbi bat egitea asko zailtzen<sup>36</sup>. Bestetik, krisi ekonomikoak sortutako segurtasun eta arautze ezak, gizartearen nahiak aldatu egin ditu. Gaur egun, ziurtasun ekonomiko, sozial eta askotan identitarioa dira gizartearen eskakizun nagusiak eta honetan, aurreko gakoetan gertatu den moduan, sozialdemokraziak ez du asmatzen jakin.

Orain arte aipatutako ideia guztiak Nancy Fraser-ek bikain batu zituen artikulu batean<sup>37</sup>. Beraren ustez, prozesu hau neoliberalismo progresistaren amaiera dakar. Neoliberalismo progresista 1990ko hamarkadan Bill Clinton-ek eta Tony Blairrek hasi zuten bidetari deitzen dio Fraserrek, non mugimendu sozial berrien (feminismoa eta antiarrazismoa adibidez) eta gama altuko negozioen eta zerbitzu sektoreen arteko aliantza bat sortu zen. Hala, indar progresistak kapitalismo finantzarioarekin batu ziren. Batura eta aliantza hori alderdi sozialdemokratan islatu egin da, gaur egun hori bihurtu delarik elementu garrantzitsu bat.

Laburbilduz, gure **lehenengo hipotesi** hau izango da: H<sub>1</sub>) **alderdi sozialdemokratek geroz eta agenda sozioekonomiko neoliberalagoa izan, orduan eta osasun kaskarragoa izango dute.**

Alderdi sozialdemokratek, eskuinaratze prozesu baten baitan, ongizatearen eta interbentzionistak diren politikak defenditzeari eta inplementatzeari utzi diote. Historikoki bere zutabea izan den langile klasea errefusatu egin du eta ustezko klase ertain bati begiratzera igaro da. Bien bitartean, gutxiengoaren aldeko politika

<sup>35</sup> Rodriguez Aguilera de Prat, Cesareo (2015). *¿Por qué la socialdemocracia decepciona cuando gobierna?*. [ Agendapublica.es]. Online; <http://agendapublica.es/por-que-la-socialdemocracia-decepciona-cuando-gobierna/>

<sup>36</sup> Paramio, Ludolfo (2012). *La Socialdemocracia maniatada*. Madrid: La Catarata. 86-91.

<sup>37</sup> Fraser, Nancy (2017). *El final del neoliberalismo “progresista”*. [Sinpermiso.info]. 2017-01-12. Sarean: <http://www.sinpermiso.info/textos/el-final-del-neoliberalismo-progresista> . [Kontsulta-data: 2017-05-16]



postmaterialistak, LGTB-en aldekoak adibidez, aplikatzera pasa da bakarrik. Azken ideia hau paradoxikoa da oso, izan ere, alderdi sozialdemokratek geroz eta agenda neoliberalago bat hartu duten bitartean, orduan eta gehiago gerturatu dira aitorten politiko hauetara. Nolabait sozio-ekonomian nortasun propioa galtzen joan dira eta politika postmaterialistan bilatu dute nortasuna.

### 2.3.2. Alderdi sozialdemokraten barne egitura

Hurrengo puntuan, alderdi hauen barne ikuskeraz eta antolamenduaz arituko gara. Azken hamarkadetan zehar, antolamendu sozialdemokrata hauetan zuzendaritza eta arduradun postuetan progresiboki elite bilakatze prozesu bat eman da. Alderdiaren oinarriak eta hautesleak defendatu eta ordezkatu beharrean, boteretsuen eta korporazioen alde jarduten duten zuzendaritzak sortu dira. Horrela, elite oso boteretsu batzuk sortu dira, postu horietara alderdien baseen babesarekin iritsi direnak, baina paradoxikoki, behin iritsita, beren onurako eta *establishment*-aren alde lan egiten dutenak.

Gero eta gehiago, alderdi sozialdemokraten militante inportante bat izateak mundu pribatura ailegatzeko lorbidea da besterik ez. Honen adibide garbiena *revolving doors*-etan<sup>38</sup> dugu, alegia, politikagintzan egon eta gero enpresetara doazen politikari ohiak. Pertsona hauek politikan egon diren bitartean izugarritzko kontaktu sareak osatu dituzte korporazioekin, eta haien ibilbide politikoa amaituta, esfera pribatu honetara salto egiten dute, lehen zeharka lan egin zuten enpresentzat oraingoan zuzenean enplegatuta. Honek esan nahi du elite sozialdemokratetan merkatuaren aldeko izugarritzko mentalitatea dagoela, gehiengo bihurtu dela gaur egun<sup>39</sup>. Hala, aberatsen eta korporazioen sozialismo bat eratu da<sup>40</sup>.

Orain azaldutakoarekin paraleloki, hots, eliteak establishment eta merkantilizatu diren bitartean, alderdietako oinarriekiko errepresentazio krisi bat gauzatu da. 70ko hamarkada arte, aukeratutako ordezkariak ordezkatu nahiak eta borondateak irudikatzen zituzten<sup>41</sup>. Politikak ere langile klasearen onurarako egiten ziren. Kontra, hamarka horretatik aurrera, neoliberalismoaren gorakada ematen zen bitartean, hau guztiz aldatu egin da. Klase boteretsuen partetik presioak ailegatuko dira, eta hauen mesedetara mugituko dira alderdi sozialdemokraten zuzendaritzak.

<sup>38</sup> Jones, Owen (2014). *El establishment. La casta al desnudo*. Barcelona: Seix Barral.. Liburuan ederki lantzen da kontzeptu hau, gurean ere nahiko erabilia eta ezaguna dena.

<sup>39</sup> Rodriguez Aguilera de Prat, Cesareo (2015). *¿Por qué la socialdemocracia decepciona cuando gobierna?*. [ Agendapublica.es]. Online; <http://agendapublica.es/por-que-la-socialdemocracia-decepciona-cuando-gobierna/>

<sup>40</sup> Jones, Owen (2014). *El establishment. La casta al desnudo*. Barcelona: Seix Barral.. 179 orrialdea

<sup>41</sup> Basave, Agustin (2015). *La cuarta socialdemocracia. Dos crisis y una esperanza*. España: La Catarata. 60-61 orrialdeak.

Hortaz, aurrera eraman diren politika asko eta asko ez dira behetik sortutako eskarien ondorioz gauzatu, baizik eta korporazioen eta *lobby* diferenteen eskariei men eginez. Gainera, ustezko klase ertain bati zuzendutako politikak izan dira hauek, boterea lortu duena<sup>42</sup>, historikoki sozialdemokraziaren euskarria izan den langile klasea ordezkatzuz. Hala bada, alderdien militanteei ezinezko egiten zaie kondizio hauetan haien arduradunen jarduerak eta erabakiak ikuskatzea. Batik bat horien sorkuntza ibilbidean ez dutelako parte hartzen, haien iritziak gehienetan erabat isilduak daudelako. Ordezkaritzan ere fenomeno baliokide bat izan da, parlamentuetan gero eta langile klaseko pertsona gutxiago daudelako. Prozesu honen emaitza baseen eta eliteen arteko banaketa soziala izan da<sup>43</sup>.

Politika profesionalizatzen ari dela begiz bistakoa den gertaera bat da, eta sozialdemokrazia ez da honetan salbuespena. Oinarrietan kokatzen diren militanteen pixkanakako bazterketak eta agintaritza postuetan pertsona berdinen errotzeak onura propioaren mesedez, alderdietan kasta sortu du<sup>44</sup>. Kasta, Owen Jonesen<sup>45</sup> definizioa erabilita, eliteen eta boteretsuen partetik demokrazia gestionatzea da, sufragio unibertsalak haien interes propioei kalte egingo ez dienik ziurtatuz. Jonesekin jarraituz, profesionalizatzeko honen adibiderik garbiena parlamentuan ematen da. Gero eta parlamentari gehiago partiduan karrera politiko oso bat egin dutenak dira, alderditik kanpo inolako esperientzia laboralik egin gabe. Honek, parlamentari hauek alderdi sozialdemokraten gaur egungo egoeraren eta establishmentaren alde jartzen ditu guztiz. *Statu quo*-aren defendatzaile. Horregatik gero eta gehiago alderdiak militantez husten ari da, ez direlako ordezkatuak sentitzen. Halatan, alderdiak abandonatu diren estaldurak bihurtu dira<sup>46</sup>.

Honenbestez, ***bigarren hipotesi*** nagusiarekin topatu gara: H<sub>2</sub>) **alderdi sozialdemokraten botere guneetan eliteak eta korporazioak ordezkatzeko duten *establishment*-a eta militanteen interes eta nahiak talka egin dute.**

Sozialdemokrazia krisian sartzea ere eragin du prozesu honek, zuzendaritzek enpresa boteretsuen alde jarri diren bitartean militantzia baztertu duelako, agintaritza postuetan errepresentazio falta izugarri bat suertatuz. Horrela, *revolving doors* eta antzerako gertakariak askotan eman dira, alderdi sozialdemokraten eta enpresa

---

<sup>42</sup> Jones, Owen (2011). *Chavs. La demonización de la clase obrera*. España: Capitán Swing. 129 orrialdea.

<sup>43</sup> Caparrós, Rafael (2008). *Robert Michels y las teorías elitista-competitivas de la democracia*. Revista Entelequia.

<sup>44</sup> Navarro, Vincenç (2016). *El abandono del socialismo por la socialdemocracia española*. [Publico.es]. 2016-06-23. Sarean: <http://blogs.publico.es/dominiopublico/17150/el-abandono-del-socialismo-por-la-socialdemocracia-espanola/>. [Kontsulta-data: 2017-05-16].

<sup>45</sup> Jones, Owen (2014). *El establishment. La casta al desnudo*. Barcelona: Seix Barral.

<sup>46</sup> *Ibid.*, 105-106.

pribatuen lankidetzak estua adierazten digutenak. Justu, alderdi hauen oinarriaren kontrako politikak aurrera eramaten dituzten korporazio berdinak.

### 2.3.3. Europa integrazio eta globalizazio prozesuak

---

Aurrera jarraituz, datorren lerroetan Europaren Integrazio prozesua eta globalizazioak alderdi sozialdemokratetan izan duten eragina aztertuko dugu, 2008.urteetik herrialde hauetan bizi dugun krisi ekonomikoa ahaztu gabe.

XX. mendearen amaiera iritsi arte, alderdi sozialdemokratik kapitalismoa hoberen kudeatu dutenak bezala aurkeztu zaizkigu. Komunisten eta kontserbadoreen artean kokatuta, ongizate estatuaren sortzaile kontsideratzen ziren, demo-kristauekin batera. Hala ere, neoliberalismoaren presiopean, hasieran ezagututako sozialdemokrazia hori aldatuz joan zen, eta herrialde batzuetako gobernuak, hala nola Ingalaterra eta Alemania, Hirugarren Bideari edo sozialliberalismoari hasiera eman zioten. Aurreko lerroetan ikusteko aukera izan dugun moduan, bide honetan estatuaren interbentzioa gutxitu zen nabarmen, pribatizazioak gora zihozten bitartean, nahiz eta hein handi batean laguntza sozialak mantendu.

Prozesu hau ezin dugu banandu Europako integrazio prozesuaz. Hau II. Mundu Gerra eta gero abiarazitako eraikuntza dugu, hasiera batean helburua gerrako kalteak berreraikitzea bazen, gerora Europako herrialdeen arteko batasuna sortzea izango da. Integrazio hori pixkanaka eta tratatu desberdinez baliatuz eraiki egin zen, baina abiapuntua 1950. eta 1957.urteetan artean. Urte hauetan Europar Komunitatearen hiru tratatuak sinatu ziren, lehenengoa Europako Ikatz eta Altzairuen Erkidegoa izan zelarik, 1951n. 6 herrialde izan ziren sinatzaileak; Alemania, Belgika, Frantzia, Herbehereak, Italia eta Luxenburgo. Helburua oso inportante bat Frantzia eta Alemaniaren arteko erlazioa sendotzea izan zen, bi herrialdeen arteko gatazka militarrekin behin betiko amaitzeko<sup>47</sup>.

Dena dela, 1957.urtea izan zen benetan erabakigarria, Europako Energia Atomikoaren Erkidegoa eta batez ere Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) sortzeko itunak sinatu zirelako. Aurreko sei herrialdeen arteko akordia izan zen, Europako zenbait herrialdeen arteko koordinazioaren eta ulermenaren aurreneko pausuak bihurtu zena. Baina EEEren eraikuntzak zerikusi gutxi izan zuen behetik gora edo eredu demokratikoan egiten den integrazio-prozesu batekin. Jaiotzetik proiektu elitista bat izan zen, herritarren presentzia eta partaidetza murriztu zirelarik<sup>48</sup>.

---

<sup>47</sup> Blas Mendoza, Asier et al. (2015). *Munduari so*. Udako Euskal Unibertsitatea. 33-54

<sup>48</sup> *Ibid.*

Gauzak horrela, Europako integrazioa pixkanaka gero eta garbiago batasun monetario, finantzario eta komertzialean egin zen, integrazio politikoa gutxiesten zen bitartean<sup>49</sup>. Bada, Maastrich-eko Tratatua (1992) edo Europar Batasuneko Tratatua iritsiko gara. Europar Batasuneko tratatu fundatzaileetako bat dugu. Gerra garaia eta gero hasitako prozesu politikoaren amaiera kontsideratu dezakegu itun hau. Baina ez zen bidearen bukaera bat izan, horren puntu eta jarraia baizik, hortik aurrera pausuak sakondu eta azkartu egin zirelako, beti norabide neoliberal sakonago bat hartzen. Hurrengo urteetan, Euroa moneta gisa hartzeak eta Amsterdam<sup>50</sup>-eko, Niza-ko eta Lisboa-ko tratatuak honen adibide ditugarik.

Prozesu hau asko azkartu zen euroaren onarpenarekin. Moneta bakarraren ezarpenarekin, herrialdeek balantza komertzialak orekatzeko zuten tresna galtzea ekarri zuen, hots, devaluazioa. Hortaz, Europako herrialde boteretsuen papera indartuz joan zen (batez ere Alemaniarena), haren hegemonia ezartzen zen bitartean, herrialde periferikoen kaltetan<sup>51</sup>.

Dena den, ezin dezakegu ahaztu prozesu hau eliteek sortutakoa izan dela. Hala, Estatuak apurka haien soberania galduz joan dira, eraikitako erakunde eta instituzio supranazionalen mesedetan (enpresa transnazionalen eraginez ere bai), hala nola, Europako Parlamentua, Europako Banku Zentrala, Nazioarteko Diru Funtsa eta Europako Komisioaren<sup>52</sup> mesedetan. Soberania galtze hau, ordea, ez da Europako herrialde guztietan berdin gertatu. Europako hegoaldeko herriak, herri "txiroak" alegia, euren soberania Alemania buru duen iparraldeko herrialdeen mesedetan galdu dute<sup>53</sup>, haiek kontrolatzen dituztelako aurreko lerroetan aipatutako instituzio horiek. Halaber, estatu-nazioaren kontrolpetik at dauden erakunde hauek defizit demokratiko itzela dute, askotan herritarren kontrol zuzenetik erabat kanpo gelditzen direnak<sup>54</sup>. Honen adibide BCE dugu, europarren partetik inolako kontrol demokratikorik ez duena<sup>55</sup>. Honek ere ondorio aipagarri bat ekarri du, Europako herritarren konfiantza falta Europako Batasunarekiko. EB eta haren instituzioekiko mesfidantza izugarri gora doa, eta horren adibide dugu azken aldian Europaren eta Euroaren kontrako mezuak hedatu direla alderdi askotan, bai ezkerrekoetan bai eskuineko alderdietan.

Guzti honen aurrean, alderdi sozialdemokratek hartutako jarrera aipatzekoa da. Sozialdemokraziak 1990ko hamarkadan guztiz besarkatu zuen Europako Integrazio

---

<sup>49</sup> Etchemendy, Sebastián (2016). *La rendición de la socialdemocracia europea y el Brexit*. [ElViejoTopo]. 2016-08-02. Sarean: <http://www.elviejotopo.com/topoexpress/la-rendicion-de-la-socialdemocracia-europea-y-el-brexit/>. [Kontsulta-data: 2017-05-16].

<sup>50</sup> Europako Banku Zentralaren (BCE) jaiotza suposatuko duen tratatua dugu, bestak beste.

<sup>51</sup> Blas Mendoza, Asier et al. (2015). *Munduari so*. Udako Euskal Unibertsitatea. 33-54

<sup>52</sup> Azken hiru erakunde hauek Troika izenez ezagutzen dugun triunbiratoa osatzen dute.

<sup>53</sup> Romero, Ricardo eta Tirado, Arantxa (2016) *La clase obrera no va al paraíso*. Madrid: Akal

<sup>54</sup> Urquizu, Ignacio (2016). *La crisis de la socialdemocracia. ¿Qué crisis?*. Madrid: La Catarata. 59-62.

<sup>55</sup> Romero, Ricardo eta Tirado, Arantxa (2016) *La clase obrera no va al paraíso*. Madrid: Akal.

prozesu neoliberal hori, haren hautesleriari proiektu alternatiborik eskaini gabe<sup>56</sup>. Bide hau baldintzarik gabe onartu du, nahiz eta egoera eta kondizio hauetan historikoki sozialdemokraziak inplementaturiko politika keynesianoak ezinezkoak diren. Izan ere, EB-ean egun indarrean dagoen sistema bera delako estrategia sozialdemokrata klasiko horiek zailtzen dituen<sup>57</sup>. Testuinguru honetan, alegia, batasun ekonomiko eta monetario honetan sozialdemokrazia asko moderatu da, kanpoan baino askoz gehiago<sup>58</sup>. Orain aipaturiko ideia hau erabakigarria da oso, hots, Europako alderdi sozialdemokratek alternatiba politiko eta ekonomiko bat osatzeari uko egin diotela. Elite enpresariaren exijentziak eta aginduak betetzearren, justizia sozialaren ideia baztertu dute, langile klasearen eta enpresari txikien kalterako<sup>59</sup>.

Aurrera jarraituz, integrazio prozesu honekin oso estuki lotuta globalizazioaren prozesua daukagu. Europako eraikuntzarekin gertatu bezala, kasu honetan ere sozialdemokraziak ez du lortu edo nahi izan alternatibarik mahai-gaineratzea. Globalizazio neoliberalak sekulako transformazio ekonomiko eta kulturalak sortu ditu azken hamarkadetan, eta Europan, integrazio prozesuaz lagunduta, indartu egin dira. Gauzatutako transformazio hauek oso sakonak izan dira estruktura produktiboan eta sozialean, konpetentzia ekonomiko, kultural eta politikoak neurri itzeletara ailegatuz<sup>60</sup>. Basavek (2015, 87.orrialdea) adierazten duen moduan, "Sozialdemokraziaren akatsa globalizazioaren aurrean oraina imitatzea izan zen iraganarekin ez lotzeko, etorkizunari begira identitate berri bat bilatu ordez"<sup>61</sup>.

Hari honetatik tiratzen jarraituz, ezin daiteke komentatu gabe gelditu fordismoaren amaiera, edo beste modu batean esanda, postfordismoaren jaiotza. XX. Mendeko azken laurdenetik aurrera, lan munduan malgutasuna, ezegonkortasuna eta prekarizazioa modu basati batean aurrera eramane<sup>62</sup>. Paradigma berriak sartuko dira jokoan, informazioaren teknologia, espezializazio malgua eta honi lotutako produkzio teknologia berriak, besteak beste. Honek langile klasea erabat eraldatu egin

---

<sup>56</sup> Naïr, Sami (2009). *El dilema del socialismo europeo*. [El País]. 2009-10-13. Sarean: [http://elpais.com/diario/2009/10/13/opinion/1255384813\\_850215.html](http://elpais.com/diario/2009/10/13/opinion/1255384813_850215.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

<sup>57</sup> Rodríguez Aguilera de Prat, Cesareo (2015). *¿Por qué la socialdemocracia decepciona cuando gobierna?*. [Agendapublica.es]. Online; <http://agendapublica.es/por-que-la-socialdemocracia-decepciona-cuando-gobierna/>

<sup>58</sup> Urquizu, Ignacio (2016). *La crisis de la socialdemocracia. ¿Qué crisis?*. Madrid: La Catarata. 63.orrialdea

<sup>59</sup> Rodríguez Prieto, Rafael (2012). *De la socialdemocracia al socialliberalismo. La socialdemocracia en la encrucijada: declive, renunciaciones y alternativas*. [Agendapublica.es]. 2015-05-28. Sarean: <http://agendapublica.es/por-que-la-socialdemocracia-decepciona-cuando-gobierna/> . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

<sup>60</sup> Garzón, Alberto (2016). *¡Digamos adiós a la izquierda pija!*. [Eldiario.es]. 2016-11-12. Sarean: [http://www.eldiario.es/tribunaabierta/Digamos-adios-izquierda-pija\\_6\\_579602050.html](http://www.eldiario.es/tribunaabierta/Digamos-adios-izquierda-pija_6_579602050.html) . [Kontsulta-Data: 2017-05-16].

<sup>61</sup> Basave, Agustín (2015). *La cuarta socialdemocracia. Dos crisis y una esperanza*. España: La Catarata liburuan ageri da. Itzulpen propioa da.

<sup>62</sup> Romero, Ricardo eta Tirado, Arantxa (2016) *La clase obrera no va al paraíso*. Madrid: Akal. 24-25

du. “Lepo urdineko” langileak, enpresa oso handienetan batzen zirenak, desagertzen joan dira. Horien ordez, hirugarren sektoreari lotuta dauden “lepo zuriko” langileak ditugu; saltzaileak, zerbitzariak eta Estatuaren administrazioarako lan egiten dutenak adibidez. Honekin ez dugu esanahi langile klasea galdu denik. Lan munduaren konfigurazio berri baten aurrean gaude, besterik ez<sup>63</sup>.

Pausuz pausu, eredu keynesianoaren ongizate estatua eraisten joan da. Lehen, pertsonak eta enpresak ziurtasunen inguruan eraikitzen zuten haien bizitza. Hau da, estatuaren partetik babesak zeukaten eta munduko ekonomia (eremu finantzario eta produktiboan) oso erregulatua jarduten zuen. Baina Thatcher eta Reaganen neoliberalismoaren ezarpena medio, ongizate honen amaierara joan gara. Konpetentzia bizitzaren esparru guztietara txertatuz joan da, eta bizitza eta enplegu egonkor bat izatetik malgutasuna izatera pasa gara<sup>64</sup>. Hori bai, hau ez da neurri berdinean guztientzako berdina gertatu. Izan ere, badira enpresa asko, transnazionalak kasu, globalizazioaz aprobetxatu direnak eta hau bultzatu dutenak. Hala, enpresa hauek haien aukerak multiplikatuz, merkatu berriak lortu eta diru sarrerak areagotu dituzte, langile ez kualifikatuak eta globalizazioa ez zuzendutako enpresen kalterako. Honen aurrean, Sozialdemokrazia globalizazioaren babesle moduan jardun du. Bestelako proiektu diferentierik sortu ez eta sozialliberalismoarekin edo Hirugarren Bidearekin horren jarraitzaile izan dira. Horrela, bide honetatik sortutako merkataritza askeko itunak (CETA esaterako) eta austeritate politikak babestu egin dituzte alderdi sozialdemokratek.

Halaber, 2008tik aurrera egoera honetan osagai berri bat daukagu, hots, krisi ekonomikoa. Hipoteka basuren goreneko unea eta Lehman Brother’s-en erorketa eta ondorengo kalte ekonomikoak, Europako hegoaldeko herrialdeen zor krisiarekin batu ziren. Gaur oraindik bizi dugun krisi ekonomikoaren hasierako osagarriak izan ziren hauek, besteak beste<sup>65</sup>. Europako Batasuneko erakunde guztien partetik erantzuna guztiz kontserbakorra izan zen. Elite ekonomikoen interesak herritarren interesen gainetik kokatu ziren, azken hauei etorkizun latz bat eskainiz. Horrela, alde batetik desarautze finantzario eta laborala bultzatzen zen bitartean, beste alde batetik inflazioaren kontrola eta aurrekontuen egonkortasuna bermatu ziren, gizartearen bizitza kondizioak eta berdintasuna kaltetuz.

Honenbestez, orain esandakoa guztia laburbiltzeko, Europako Integrazio prozesua, globalizazioa eta krisi ekonomikoaren aurrean, Sozialdemokraziak ez du jakin

---

<sup>63</sup> *Ibid.*, 86-87.

<sup>64</sup> Garzón, Alberto (2016). *¡Digamos adiós a la izquierda pija!*. [Eldiario.es]. 2016-11-12. Sarean: [http://www.eldiario.es/tribunaabierta/Digamos-adios-izquierda-pija\\_6\\_579602050.html](http://www.eldiario.es/tribunaabierta/Digamos-adios-izquierda-pija_6_579602050.html). [Kontsulta-Data: 2017-05-16].

<sup>65</sup> Etchemendy, Sebastián (2016). *La rendición de la socialdemocracia europea y el Brexit*. [ElViejoTopo]. 2016-08-02. Sarean: <http://www.elviejotopo.com/topoexpress/la-rendicion-de-la-socialdemocracia-europea-y-el-brexite/>. [Kontsulta-data: 2017-05-16].

hiru arazo nagusi hauen aurrean alternatiba fidagarririk proposatzen. Are gehiago, historikoki haren oinarria izan diren langile klasea eta klase ertaina ondoratzen utzi dute.

Hau izango da gure lanaren **hirugarren hipotesia**: H<sub>3</sub>) **Neoliberalismoaren garaipen ekonomiko, ideologiko eta kulturala ematen den bitartean, alderdi sozialdemokratak horretara moldatzera igaro dira, benetako aldaketak behartu eta bultzatu ordez.**

Horrela, Sozialdemokraziak eliteek eta enpresa boteretsuen neurritik sortutako prozesu eta erakundeak babestu ditu, historikoki defendatu diren neurri ekonomiko eta politikoak baztertuz eta haien hautesle potentzialen kontra joanez.

### 2.3.4. Hauteskunde sistemak

---

Ondorengo lerrotan, Britainia Handiko, Alemaniako, Espainiako eta Greziako hauteskunde sistemak aztertuko ditugu. Lau herrialdeak sistema parlamentarioak izanik, Parlamentuko hauteskundeetan zentratuko gara, herrialdearen egoera politikoaren adierazgarrienak direlako, edo gutxienez estatu hauen argazkirik errealea emango digutenak direlako.

Gure **laugarren hipotesia** zera da: H<sub>4</sub>) **hauteskunde sistema proportzionalek alderdi hauen krisiaren agerpena laguntzen dute, ordea, gehiengozko sistemek, desproporzionalagoak izanda, kontrakoa eragiten dute, alegia, osasun txar hori oztopatu.**

Hau da, segun eta zein hauteskunde sistema erabiltzen den herrialdean, alderdi sozialdemokraten osasun txarra nabariagoa izango da edo ez.

Atal honetan laguntzeko Arend Lijphart-en maisu lana<sup>66</sup> erabiliko dugu bereziki, berak gai honetako gako nagusiak modu argi batean azaltzen dituelako. Guri interesatzen zaigun bere lanaren atalean<sup>67</sup>, 36 demokrazia ikertzen ditu helburu zehatz batekin, botoak eserleku bilakatzean zein nolako proportzionaltasuna ematen den jakitea.

Lijphartek hauteskunde sistemen proportzionaltasuna aztertzeko, hiru tresna nagusi adeitasunez ikertu behar direla aipatzen du, bestelako ezaugarri berezi batzuekin batera, hauek ere gero ikusiko ditugunak. Bada, sistema orotan ikusi beharreko hiru ezaugarri nagusiak hauteskunde formula, barrutiaren magnitudea eta

---

<sup>66</sup> Horretarako, liburua hau erabiliko dugu; Lijphart, Arend (2012). *Patterns of Democracy, Government forms and Performance in Thirty-six Countries*. . Second edition. Yale University Press/ New Haven & London.

<sup>67</sup> *Ibid.*, 130-158 orrialdeak.

hauteskunde limiteak dira. Hauek erabakiko dute hein handi batean hauteskunde sistema orekatu batean gauden ala sistema desproporzionatu baten aurrean. Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu behar sistema guztiak direla, bakoitza bere neurrian, desproporzionalak.

Hasteko, gure lau herrialdeen hauteskunde sistemen formuletara joko dugu. Beheko eskeman ageri da herrialde bakoitzak zein formula mota erabiltzen duen haien hauteskundeetan. Britainia Handira begiratzuz, gehiengo sistemen adibide garbi bat da. Herrialdea (Eskozia, Ipar Irlanda eta Gales barne) 650 izen bakarreko barrutietan zatitzen da, bakoitzean Komunen Ganberako eserleku bat jokoan dagoela. Modu simple batean aukeratzen da irabazlea; boto gehien lortu dituenak eramango du eserlekua, itzuli bakar batean. Hurbileko aurkaria baino boto bat gehiago lortu behar da barruti horretako errepresentazio oso lortzeko. "First past the post"<sup>68</sup> deitzen zaio honi.

Plurality and majority formulas	{ Plurality formula Majority-plurality Alternative vote	{ BAH    BAR    BOT CAN    IND    JAM MAU    TRI    UK US NZ (1946–93) FRA (except 1986) AUL			
			Semiproportional formulas	{ Limited vote Single non-transferable vote Parallel Plurality-PR	{ JPN (1946) JPN (1947–93) KOR JPN (1996–)

Iturria: Lijphart (2012)

<sup>68</sup> *Ibid.*



Ordezkaritza era proportzional batean banatzen dutenen artean, formula anitz daude, baina orokorrean denek bat egiten dute izen anitzeko barrutietan eta botoen arabera eserlekuak banatzean. Hemen kokatuko ditugu gure lanean aztergai diren Espainia, Grezia eta Alemania. Dena den, bakoitzak bere berezitasunak ditu, segidan aztertzeraz igaroko garenak.

Gauzak horrela, lehenik eta behin Espainia eta Grezia batera aztertuko ditugu, biak sistema proportzional baten barruan ordezkariak proportzionalen zerrendan kokatzen direnak. Espainiari dagokionez, hiruren artean berezitasun gutxien daukan estatua dugu. Barruti bakoitzean botoen araberako eserlekuen banaketa (350 diputatu daude) ematen da, D'Hondt formula erabilita. Kontra, Grezian ezaugarri berri batekin topatzen gara. Herrialde honek 300 eserleku ditu bere behe ganbaran, baina Espainian ez bezala, eserlekuen banaketa proportzionalarekin batera garaileari sari bat ematen zaio. Garaipen bonus-a deitzen zaio, eta hauteskunde irabazleak 50 diputatuko saria eramaten du<sup>69</sup>. Honek, argi dago, desproportzionaltasuna hazi egiten du.

Bestetik, Alemaniaren kasu nabarmen berezia da. Lijphartek (2012) *“Mixed member proportional formula”* moduan izendatu zuen. Gutxienez 598 diputatuk osatzen dute Bundestag-a, nahiz eta gaur egun 631 diputatu dauden. Hautaketa sistema mistoa da. Diputatuen erdia (299) gehiengo sistema bitartez izen bakarreko barrutietan aukeratzen da. Kontra, beste erdia sistema proportzionalaren bitartez esleitzen dira estatu federaletan (Länderrak). 598 diputatuak gutxienez botoen %5 lortu duten alderdien artean banatzen dira edo hiru barrutietan irabazi dutenen artean. Alderdi bakoitzari egokitzen zaizkio proportzionalki dagozkion eserlekuak parlamentuan, Sainte-Laguë metodoaz baliatuta. Diputatu kopuru honi gehiengo sistema bidez lortutako diputatu kopurua kentzen zaizkio, emaitza izanik egokitzen zaizkienak proportzionalerako sistemarekin. Horregatik hau da benetan boto garrantzitsua eta ez gehiengozkoa. Sistema berdinarekin banatzen dira diputatuak Alemaniako estatuen artean (beraz aldakorra da, geroz eta parte hartze handiago izan estatu batek ordezkari gehiago izango dituelako). Beraz, Länder batean alderdi batek atera dituen zuzeneko mandatuak seguruak dira. Baina gerta liteke portzentaje ikuspuntutik atera beharko lituzkeen diputatu kopurua baino gutxiago ateratzea. Kasu horretan alderdi zerrendari ematen zaizkio diputatuak proportzionalki ordezkaria izan arte (zerrenda artean banatzen dira). Aldiz, kontrako norabidean ez da gertatzen berdina<sup>70</sup>.

---

<sup>69</sup> Sari hau 2016an indargabetu zuten Grezian. Hala ere, ezingo da hurrengo hauteskundeetan oraindik aplikatu, erreforma honen aldeko botoak 200 baino gutxiago izan zirelako. Informazio gehiago, online: <http://www.rtve.es/noticias/20160722/parlamento-griego-aprueba-reforma-electoral-elimina-bonus-partido-mas-votado/1374563.shtml>

<sup>70</sup> Alemaniako hauteskunde sistemaren funtzionamendu hau EHUko Zientzia Politikoak eta Administrazio Publikoa graduko Politika Konparatua irakasgaiaren apunteetatik jasotakoa da. Asignatura honen irakaslea Asier Blas da.

Aipatu dugun moduan, aztertu beharreko bigarren ezaugarria barrutien magnitudea da. Hots, barruti bakoitzean zenbat hautagai aukeratzen diren. Lijphartek (2012) sistema baten proportzionaltasuna kalkulatzeko bidean, faktore oso inportante bat zela uste zuen. Alta, magnitude honen kopurua ondorio oso desberdinak sortarazten ditu segun eta zein sistema motaren aurrean gauden. Alegia, gehiengoak sistemetan gero eta magnitude handiago izateak desproportzionaltasuna dakar. Horrela, alderdi indartsuenak onurak lortzen dituzte, alderdi txikien kalterako. Britainia Handia honen adibide dugu, barruti bakoitzean hautagai bat aukeratzen delako bakarrik. Sistema proportzionaletan, ordea, kontrako eragiketa ematen da. Izan ere, gero eta barrutien magnitudea handiagoa izan, gero eta proportzionalagoa izango da eserlekuen banaketa. Hortaz, alderdi ahulenen aukerak hazi egiten dira, haiek eskuratutako botoak aulki bihurtzeko aukerak gora doazelako. Grezian eta Espainia hau gertatzen da, nahiz eta magnitudeak aldakorrak izan (magnitude txikiko eta handiko magnitudeak nahasten dira). Alemaniako kasua, aurreko bien batuketa bat da, lehen ikusi dugun moduan izen bakarreko eta izen anitzeko barrutiak erabiltzen direlako.

Aurrera jarraituz, hirugarren ezaugarri nagusia hauteskunde limiteak edota *thresholds*<sup>71</sup>-ak dira. Hauteskunde sistema batean bi modu daude limiteak ezartzeko. Aurreneko eran, botoen guztizkoari ezartzen zaio limite hori, bozen gutxieneko kopuru bat eskuratu behar delarik ordezkariak eskuratzeko. Bigarrenik, eserlekuei ezartzen zaio limitea, gutxiengo bat eskuratu behar delarik ganberara iristeko. Hala eta guztiz ere, lehenengo era erabiltzen da estatu gehienetan. Prozedura hauek sistema proportzionaletan eta gehiengoak ematen dira, eta alderdi txikiak hesi inportanteak izan daitezke, kontutan izanda hauen kapazitate murrizta askotan eskakizun horiek betetzeko. Gainera, normala den moduan, gero eta limite zorrotzagoak ezarri, gero eta desproportzionaltasun handiagoa izango dugu.

Bestalde, Lijphartek (2012) magnitudea eta limiteak erlazionatu zituen. Txanpon beraren bi aldeak zirela zion. Izan ere, alderdi txikiari ezartzen zaien limiteek, barrutien magnitude funtzio berdina betetzen dute. Alegia, limite zorrotzak eta magnitude txikiak alderdi apalen kalterako doaz, haien ordezkariak zailduz eta era berean sistema osoaren proportzioaren kontra joanez. Biek ala biek oztupoak jartzen dizkien alderdi txikiari. Hala, bi kontzeptuen arteko erlazioan sakondu zuen Lijphartek, eta bien artean dagoen harremana aztertzeko formula honen erabilera proposatuko du:

$$T = \frac{75\%}{M + 1}$$

---

<sup>71</sup> Lijphart, Arend (2012). *Patterns of Democracy, Government forms and Performance in Thirty-six Countries*. . Second edition. Yale University Press/ New Haven & London.

**Iturria: Lijphart (2012)**

T limiteari egiten dio erreferentzia eta M herrialdearen magnitudeen batz besteko kopurua da.


Ezin dugu ahaztu badaudela sistema guztietan desproporzioan influentzia asko dituzten bestelako elementu batzuk, aurretik ikusi ditugun limite, magnitude eta formulaz haratago. Lijphartek (2012) hainbat atributu azaltzen ditu, baina gure lanean, ikergai ditugun herrialdeak kontuan izanda, bakarrik horietan influentzia dutenak ikusiko ditugu. Elementu horietako lehenengoa jada aipatua daukagu, hots, garaileari ematen zaion saria. Hau Grezian gertatzen da, garaipena eskuratu duen alderdiari 50 eserleku ematen zaionean. Bigarren elementu inportante bat ganberako eserlekuen kopuruari dagokio. Ganbera batean eserleku asko izateak, ordezkaritza edukitzeko aukera gehiago edukitzeak esan nahi du, proportzionaltasunari men egiten diona kasu askotan. Dena den, Lijphartek kopuru hori 100 eserlekuetan uzten du. Hau da, 100 aulki dira minimoa proportzionaltasunean inportantzia nabari bat ez izateko, hortik behera bai gertatzen delako. Azkenik, hirugarren atributua ordezkarien distribuzio okerra da. Honek zera esan nahi du; sistema batzuetan barruti txikiei gainordezkaritza ematen zaio, populazioen araberako magnitude banaketa desorekatuz. Askotan fenomeno hau landa guneekin lotzen da, haienezako ordezkari gehiago izendatzen direlako. Esaterako, Espainiako kasua dugu, probintzia txikiei gutxienezko 2 aulki izendatzen zaiela, kontuan izan gabe populazioa<sup>72</sup>.

Zati teorikoarekin bukatzeko eta enpirikora igaro baino lehen, landutako hipotesien laburpen bat komenigarria da ikustea. Hurrengo formatuan ikusten den moduan, sozialdemokraziaren krisia azaltzen duten lau hipotesi ditugu, ondorengo atalean operazionalizatuko ditugunak lau aldagai hauen barruan dauden adierazleak erabilia.

---

<sup>72</sup> Lijphart, Arend (2012). *Patterns of Democracy, Government forms and Performance in Thirty-six Countries*. . Second edition. Yale University Press/ New Haven & London. 149.orrialdea.

## 2.Kontzeptu mapa



Iturria: Nik neuk egin

### 3. ATAL ENPIRIKOA

---

#### 3.1. Menpeko aldagaiak

---

Lanaren atal honetan, parte teorikoaren adierazleak operazionalizatuko ditugu. Hau egiteko, teorian jorratutako estruktura berdinez baliatu gara, lehen momentuan menpeko aldagaiak ikusten, ondoren aldagai independenteekin bukatzeko. Menpekoen zatiari dagokienez, operazionalizazioa herrialdeka egingo dugu, bukaeran batuketa eginez, estatuen arteko konparaketa bat egiteko. Aldagai independenteei begiratzen badiegu ordea, aldagai edo hipotesi bakoitza indibidualki praktikan jarriko dugu, herrialde guztiak batera aztertuz.

Lehenengoa atalean, adierazle bat alderdi sozialdemokratak haien estatuko gobernuetan botere presentzia da. Hau da, herrialde bakoitzean alderdi sozialdemokrata gobernuan dagoen ala ez kalkulatu dugu, eta dagoenean zein egoeratan. Horretarako, indize propio bat sortuko dugu. Izan ere, boterean egoteko modu asko daude (koalizioan, gobernuan bakarrik...) eta gure alderdi sozialdemokraten osasun txarrari begira ez dutenak berdina adierazten. Hala, sei egoera diferente irudikatzen ditugu, bakoitzak letra bat jasoko duena, alfabetoari jarraiki a-tik g-ra. Hauek dira sei egoera horiek:

-a: gobernu sozialdemokrata bat dugu, bakardadean, gehiengo absolutu batekin.

-b: gobernu sozialdemokrata bat bakardadean, baina gehiengo absoluturik gabe.

-d: gobernuan koalizio bat dago, alderdi sozialdemokrazia partaiderik indartsuena delarik.

-e: gobernuan koalizio bat, baino beste partaideak adina inportantzia dauka.

-f: gobernuan koalizioa bat dago, eta alderdi sozialdemokrata kiderik ahulena da.

-g: Alderdi sozialdemokrata oposizioan kokatzen da.

Beste adierazleak kalkulatzeko, hots, hauteskunde emaitzak (bozen ehuneko eta lortutako eserlekuak) eta hauen bilakaera, elezioen datu kuantitatiboak erabiliko dugu. Ezker erreferentzia izeneko adierazlearentzako, alderdi sozialdemokratek errepresentazioa lortu dutenen eta ezkerreko kontsideratu daitezkeen arteko botoen ehuneko zenbat lortu duten adieraziko digu. Bestalde, militante kopuruaren bilakaera eta Challenger Partyen existentziari dagokienez, iturri desberdinetatik lortutako

informazioa erabiliko dugu, tauletatik kanpo herrialde bakoitzaren operazionalizazioa eginez.

### 3.1.1.Espainia

1.Taula. PSOE

	<i>Hauteskunde emaitzak (%)</i>	<i>Bilakaera (%)</i>	<i>Hauteskunde emaitzak (eserlekuak)</i>	<i>Gobernuan boterea</i>	<i>Ezker erreferentzia (%)</i>
82-86	48,11		202	A	90
86-89	44,06	-4,05	184	A	86,4
89-93	39,6	-4,46	175	B	79,63
93-96	38,78	-0,82	159	B	77,54
96-00	37,63	-1,15	141	G	74,71
00-04	34,16	-3,47	125	G	80,95
04-08	42,59	+8,43	164	B	83,7
08-11	43,87	+1,28	169	B	88,4
11-15	28,76	-15,17	110	G	73,93
15-16	22,01	-6,75	90	G	44,34
16-?	22,99	+0,98	86	G	48,36

Iturria: Nik neuk egina

Lehenengo taula honetan, Espainiako PSOE alderdia dugu protagonista. Taula honetan ditugun datuak hauteskunde prozesuekin lotutako adierazleak ageri dira, amaierarako utzi dugularik militante eta *Challenger Partyak*. Hauteskunde emaitza garbiei begiratuta, PSOE 1982tik aurrera indarra galtzen joan dela ikusi dezakegu. José Luis R. Zapatero-ren agintaldia kenduta (2004-2011), behera joan da nabarmen Espainiako alderdi sozialdemokrata nagusiak. % 48,11 bat lortzetik %22,99 bat lortzera pasa da hiru hamarkada eta erditan. Aipagarriena 2008tik 2011ra izandako porrota,

ehuneko %15 bat baino gehiagoko galerekin. Diputatuei arreta jartzen baldin badiegu ondorio berdinetara ailegatuko gara. Gaur egun 86 eserleku dituen alderdi honek 202 izatera iritsi zen Felipe Gonzalez-en aurreneko gobernuan (1982), eta berriz ere Zapatero presidente izan zen garaia kenduta, aulkietan ere beherakada konstante bat bizi izan du.

Botereari begira, PSOEk aurreko adierazleak adierazten diguten bilakaera antzeko bat izan du. Gonzalezen aurreneko bi mandatuak gehiengo absolutu batekin gobernuan izan zen. Hurrengo bi legegintzaldietan, aldiz, nahiz eta gobernuan mantendu eta hauteskundeak irabazi, ez zen gehiengo absolutu batekin izan. Bukatzeko, eta berriz ere Zapateroren bi hauteskunde irabaziak (biak ala biak gehiengo simple batekin) aparte, alderdi sozialdemokrata beti egon da oposizioan, eskuinarekinkoalizio gobernuetan sartu gabe. Beste adierazle bat ezkerreko erreferentzia neurria dugu. Taulako datuak dioten moduan, Espainiako trantsizioa eta gero, PSOE beti ezkerreko erreferentzi nagusia izan da, bertan kokatu ditzakegun alderdiek lortutako botoen % 75 gutxienez haientzako izan direlako. Aldiz, dinamika hori azken bi hauteskundeetan apurtu egin da. Podemos alderdiaren azaleratzea medio, alderdi sozialdemokrataren erreferentzia ezkerrean behera egin du. Gaur egun jada ez da ezkerreko botoen erdira ere ailegatzeko.

Sozialdemokraziaren osasun txarraren azken bi adierazleak *Challenger Partyak* eta alderdiaren militanteen kantitatea dira. *Challenger Partyekin* hasita eta atal teorikoan idatzitako definizioaz baliatuta, Espainiako sistema politikoan Podemos batez ere kokatuko genuke izendapen horren barnean, Albert Riveraren Ciudadanos alderdia ahaztu gabe. Bi *challenger* alderdi hauen batura 2016ko ekaineko hauteskundeetan boto guztien %34,16koa da. Ez da batere arriskatua esatea bozka horien kantitate handi bat iraganean PSOEn alde botoa eman izan dutela. Bestetik, alderdi sozialdemokrata honek militanteen kopuruan ere atzera pausu nabarmen bat bizi izan du<sup>73</sup>. 2008. urtetik hona, hau da bederatzi urtetan, 50.000 militante baino gehiago galdu ditu alderdiak. Gaur egun 180.000 militante dituela kontuan izanda, oso zifra altua da azken hamarkadan galdutako pertsonena.

### 3.1.2. Grezia

---

<sup>73</sup> PSOEk militantzia nola galdu duen azaltzen duen artikulua bat. Online: [http://www.elconfidencial.com/espana/2016-11-10/crisis-psoe-50-000-militantes-ultimos-ochos-anos-desde-2008\\_1287316/](http://www.elconfidencial.com/espana/2016-11-10/crisis-psoe-50-000-militantes-ultimos-ochos-anos-desde-2008_1287316/)

2.Taula: PASOK

	<i>Hauteskunde emaitzak (%)</i>	<i>Hauteskunde emaitzak (aulkiak)</i>	<i>Bilakaera (%)</i>	<i>Gobernuan boterea</i>	<i>Ezker erreferentzia (%)</i>
81-85	48,02	172		A	81,47
85-89	45,82	161	-2,2	A	82,25
89-93	39	125	-6,82	G	75
93-96	46,9	170	+7,9	A	91,25
96-00	41,5	162	-5,4	A	79,5
00-04	43,79	158	+2,29	A	83,4
04-07	40,6	116	-3,19	G	82,19
07-09	38,1	102	-2,5	G	74,27
09-12	43,92	169	+5,82	A	78,4
12-12	13,2	41	-30,72	G	29,59
12-15	12,3	33	-0,9	G	24,6
15-15	4,68	13	-7,62	G	10,07
15*-?	6,28	17	+1,6	G	13,28

Iturria: Nik neuk egin. Macridis, Roy C. (1990). *Modern Political systems: Europe*. 7.Edizioa. Prentice Hall, New Jersey. \*Koalizioan aurkeztu zen DIMAR alderdiarekin.

Greziari dagokionez, PASOK alderdi da diktadura garaia eta gero sozialdemokraziaren adierazlerik garbiena. PSOErekin erabilitako sistema berdinarekin jarraituz, hasiera honetan hauteskunde emaitzetan zentratuko gara. PASOKen krisia 2012.urtean iritsiko da, non 3 urte lehenagoko emaitzekin konparatuz, botoen %30,72a galduko du, porrot galanta jasoz. Urte horretako hauteskundeak iritsi baino lehen, bozen ehuneko 40tik gora izan den alderdia izan da. 2015eko azken hauteskundeetan beherako tendentzia hori jarraitu du eta jada kostata mantentzen da ehuneko 5ean. Erorketa honi *pasokizazio* deitu zaio, beste alderdi batzuen



beherakadak izendatzeko ere balio dena. Eserlekuak, Grezia garaileari saria kenduta sistema proportzional bat izanez, jarraipena eman dio botoetan gertatutakoari. Horrela, 2012ra arte 100 aukeratik soberan egon den alderdi sozialdemokrata egun 17 bakarrik ditu.

Orain aipatu dugun

moduan, Grezian hauteskunde garailearentzat 50 eserlekuko sari bat dago. Neurri honek gobernu eraketetan garrantzi nabarmena dauka, izan ere, sari horrek garailearen gehiengo absolutu bat ekartzen du gehienetan. Horregatik, gobernu dagoen ala ez definitzen digun adierazlean, PASOKekin bakarrik bi aukera eman dira aztertutako urteetan; gehiengo absolutuko legegintzaldiak ala oposizioan egon den urteak. 80ko eta 90ko hamarkadetan alderdi sozialdemokratak gehiengo absolutua izan du askotan, Andreas Papandreu lider karismatikoa lehen ministro zelarik. Gehiengo absolutuan egondako azken garaia 2009-2012 izan da, Yorgos Papandreu lehen ministro gisa, eta hortik aurrera oposizioan egon da. Bestalde, ezkerreko alderdien erreferentzia portzentajea arretaz aztertzen badugu, ikusi dezakegu nola beste behin ere 2012a krisi urte izan zela alderdiarentzako. Historian zehar, PASOKek ezkerreko alderdien ehuneko 80 baino gehiago suposatu du. Aldiz, 2012ko eta 2015ko hauteskundeetan, bereziki Syriza ezkerreko alderdiaren igoeraren eraginez, ehuneko hori asko jaitsi da, gaur egun %13,28a dena.

Europako hegoaldeko estatu honetan *Challenger Partyen* fenomenoak ere gertatu da. Honen adibide bi alderdi azpimarratuko genituzke, aurretik aipatutako Syriza alderdia eta eskuin muturrean kokatzen den Urrezko Egunsentia (*Amanecer Dorado*). Bien inportantzia gora egin du azken hauteskundeetan, batez ere Syrizarena, 2015eko iraileko hauteskundeaz geroztik Greziako lehen ministroa alderdi horretakoa delako, Alexis Tsipras hain zuzen, botoen %35,46ekin. Amaitzeko, PASOKen militante kopurua aztertuko dugu<sup>74</sup>. 2013ko datuen arabera, alderdi honek 112.000 militante inguru zituen, herrialdearen biztanleria kontuan izanda nahiko zifra inportantea dena. Hori bai, historikoki PASOK izan dituen militante kopurua kontuan izanda, 300.000 pertsona inguru izatera ailegatu dena, zenbaki hori asko jaitsi dela ikusi dezakegu, alderdi honen krisi egoeraren beste adibide duguna.

### 3.1.3. Britainia Handia

---

<sup>74</sup> Alderdi honen militanteen kopurua artikuluan honetan aztertzen da. Online: [http://www.eldiario.es/politica/Pasok-intenta-recuperarse-credibilidad-historia\\_0\\_107089454.html](http://www.eldiario.es/politica/Pasok-intenta-recuperarse-credibilidad-historia_0_107089454.html)

3.Taula. Labour Party

	<i>Hauteskunde emaitzak (%)</i>	<i>Hauteskunde emaitzak (aulkiak)</i>	<i>Bilakaera (%)</i>	<i>Gobernuan boterea</i>	<i>Ezker erreferentzia (%)</i>
83-87	27,6	209		G	89,32
87-92	30,8	229	+3,2	G	90,32
92-97	34,4	271	+3,6	G	91,73
97-01	43,21	418	+8,81	A	92,47
01-05	40,7	413	-2,51	A	91,46
05-10	35,24	356	-5,46	A	91,32
10-15	29	258	-6,24	G	87,09
15-17	30,4	232	+1,4	G	75,25

Iturria: Nik neuk egina

Britainia Handiko taula aztertzen hasteko, hauteskunde emaitzetan ikusi dezakegu nahiz eta 2001etik 2015era botoen ehunekoen beheraka egon, erantsi beharko genioke ez dela izan oso handia. Tony Blair lehen ministro izandako hiru legegintzaldietan (1997tik 2007ra, gero Gordon Brown-ek ordezkatu zuen) Alderdi Laborista botoen ehuneko 40an inguruan kokatu zen, 80ko hamarkadetan baino emaitza hobetoak lortuz. Blairrek gidatutako Hirugarren Bideak emaitza onak izan zituen Erresuma Batuan, nahiz eta 2001eko hauteskundeetatik aurrera gizartearen babesa galtzen joan. Hala eta guztiz ere, ematen du azken hauteskundeetan %30an egonkor mantentzen dela. Komunen Ganberako eserlekuak begira, osasun txarra modu argiago batean antzematen da. Blairren lehenengo garaipenetik hona pixkanaka behera egin du aulki kopurua, eta 2015eko azken hauteskundeetan, nahiz eta botoen ehunekoan igo eserlekuetan behera egin du. Hein handi batean, Eskozian SNP-ren mesedetan galdutako parlamentarioak dira hauek. Hori bai, 80ko hamarkadako zifra berdinean kokatzen da alderdi laborista egun, beraz, beste herrialdeetan ez bezala laborismoaren osasun txarra botoetan gutxienez ez da hain sakona.

Britainia Handian, gehiengoak eta alderdi bikotasunezkoa den sistema egonda, gobernu eraketa askotan gehiengo absolutuen bitartez lortzen da. Alegia, hauteskunde irabazleak gehienetan parlamentuan gehiengo absolutua du. Hau Blairren

hiru legegintzaldietan eman zen, aztergai ditugun urteetan Alderdi Laborista gobernuan egon diren urte bakarrak. Beste urteetan oposizioan egon da, Alderdi Kontserbadorearen atzetik. Aurrera jarraituz, ezker erreferentziak agian laborismoaren osasuna ez dela hain ona adierazten digun adierazle garbiena da. Urteetan zehar ehuneko 90 inguruan egon den zenbakia dugu, baina azken data elektoralean zifra hori ehuneko 75era jaitsi egin da. SNPren eta Alderdi Berdearen igoerek hein zabal batean datu honen ardura dute.

Estatu honen analisiarekin amaitzeko, *Challenger* alderdiei dagokionez UKIP (*United Kingdom Independence Party*) dugu. 2015eko hauteskundeetan bozen %12,6a eta ia lau milioi eskuratu zituen. UKIP aurkeztutako alderdi guztietan igoera handiena izan duen alderdi izan zen, ehuneko 9,5ekoa izanik. Baina aurretik aipatutako gehiengoazko sistemaren eraginez, eskuin muturreko alderdi honek errepresentazioa eskuratzea oso zaila du. Honen adibide azken hauteskundeak ditugu, 4 milioi botoekin bakarrik eserleku bat lortu zuenean. Alderdi Laboristak, ordea, 10 milioi boto baino gutxiagorekin, 232 parlamentario bereganatu zituen. Halaber, militanteen bilakaeran, Europako alderdi sozialdemokratekin gertatu den bezala, beheranzko joera nabari bat izan du azken urteotan<sup>75</sup>, Jeremy Corbyn efektua iritsi den arte<sup>76</sup>. Alderdiaren barne hauteskundera Corbynen alde bozkatzeko eta bera aukeratu izan eta geroko egunetan laborismora 100.000 pertsona batu dira, alderdi sozialdemokrata honen oinarria milioi erdi pertsonara haziz eta urteetan zehar mantendutako beherazko dinamikari buelta emanez.

### 3.1.4. Alemania

---

<sup>75</sup> EBko bi alderdi nagusien artean, milioi bat militante galdu dira azken hiru hamarkadetan. Hartleb, Florian (2012). *All tomorrow's parties: The changing face of European party politics*. CES. Brussels. 20. orrialdea.

<sup>76</sup> Alderdi Laborista zenbat militanteetan igo den azaltzen duen artikulua. Online: [http://www.eldiario.es/politica/Partido-Laborista-Jeremy-Corbyn-afiliados\\_0\\_535096821.html](http://www.eldiario.es/politica/Partido-Laborista-Jeremy-Corbyn-afiliados_0_535096821.html)

4.Taula: SPD

	<i>Hauteskunde emaitzak (%)</i>	<i>Hauteskunde emaitzak (aulkiak)</i>	<i>Bilakaera (%)</i>	<i>Gobernuan boterea</i>	<i>Ezker erreferentzia (%)</i>
83-87	38,2	202		G	87,21
87-90	37	193	-1,2	G	81,68
90-94*	33,5	239	-3,5	G	81,9
94-98	36,4	252	+2,9	G	75,68
98-02	40,9	295	+4,5	d	77,61
02-05	38,5	251	-2,4	d	75,34
05-09	34,2	222	-4,3	F	71,85
09-13	23	146	-11,2	G	53,24
13-17	25,7	193	+2,7	F	62,38

Iturria: Nik neuk egina. \*Lehenengoak izan ziren Alemaniaren unifikazioa gertatu eta gero. Bundestag-aren neurria ere handitu egin zen 519 eserlektutik 662 eserlektutara igaroz. Hortaz, aurreko hauteskundeekin konparaketa ez da guztiz fidagarria.

Alemaniako kasuan, adierazleek Espainia eta Greziako estatuek pairatutako dinamika berdina azaleratzen digute. SPDk 90ko hamarkadan hauteskunde emaitzarik hoberenak izan zituen, Gerhard Schröder eta haren Hirugarren Bidearen momenturik gorenarekin kointziditu egin zutenak. Dena dela, azken urteetan zehar Alemaniako alderdi sozialdemokratak apurka botoak eta eserlekuak galtzen joan da, 2013ko azken hauteskundeetako emaitzak kenduta, hamarkada baten ostean zehar izandako beheranzko joerari (hiru elektzio -%17,9ko galera batu dutenak) buelta eman diotenak. Horrela, orain aipatutako azken hauteskunde hauetan SPD ehuneko 25,7an kokatu da, 193 diputatuekin, 1998an lortutako ehuneko 40,9 eta 295 eserlektutik oso urruti.

Gobernuetan izandako partaidetzari begiratzen badiogu, bilakaera nahiko berezia izan dute SPDren gobernuek, gure lanean ikergai ditugun beste hiru estatuetan eman ez dena. Lau legegintzaldi desberdinetan indarrean egon da, baina inoiz ez da bakarrik egon gobernuan. Izan ere, Schröder kantziller izandako bi aldietan, 1998-2002

eta 2002-2005 garaietan, alderdi berdearekin sinatutako itunen bitartez gauzatu dira. Kasu hauetan, alderdi sozialdemokrata koalizio horretako zatirik indartsuena izan da. Beste bi aldietan (2005-2009 eta 2013-2017), aldiz, CDU/CSU eskumako alderdiarekin osatu du gobernu, bi alderdi nagusien arteko koalizio bat eratuz. Gainera, bi egoera hauetan SPD koalizioaren parterik ahulena izatera pasa da, Angela Merkel-en alderdi demo-kristauak diputatuen gehiengoa zuelako. Bada, Alemaniako sozialdemokraziak boterean jarraitu du, baina datuek garbi erakusten digute inportantzia gutxiagorekin eman dela hori.

Ezker erreferentzia adierazleak orain esandakoarekin bat egiten du. Urteetan zehar ezkerreko bozka guztien ehuneko 75-80 inguruan egon eta gero, azken bi hauteskundeetan kopuru hori asko egin gu behera, baxuenak 2009ko %53,24a izanik. Testuinguru honetan, alderdi berdearen presentziarekin batera, ezkerrean sortutako alderdi berri baten agerpena azpimarratu beharra dugu, Die Linke. Bitan aurkeztu da hauteskunde federaletara, 2009an ehuneko 11,9 bat lortuz eta 2013koetan ehuneko 8,6 bat. SPD baino ezkertiarra den alderdi honek hautesle asko kendu dizkio alderdi sozialdemokratari, ezker erreferentzia adierazlean ikusteko aukera dugun moduan.

*Challenger* alderdiei dagokienez, Alemanian kategoria honetan kokatu dezakegun alderdi inportantea AfD (*Alternative für Deutschland*) dugu, 2013an sortutako eskuin muturreko formazioa. Bundestagean oraindik eserlekurik gabeko formazioa da (legeak markatzen duen %5era ailegatu ez zelako), alabaina, bakarrik hauteskunde federal batzuetara aurkezteko aukera izan du, justu sortu eta hilabete batzuetara ospatu zirenak. Hala, 2017an ospatuko diren hauteskundeetan errepresentazioa lortzeko aukera handiak ditu, alderdi honen mezua agenda politikoan pixkanaka txertatzen hasia delako.

Azkenik, SPDrekin bueltatuz, erakunde honen militantzia Europako alderdi sozialdemokrata askotan gertatzen den antzera, behera doa nabarmen<sup>77</sup>. Hori irudikatzeke, bi datu erabiliko ditugu, bata bestearekiko 5 urteko diferentziarekin, hamarkada erdi horretan zenbat militante irabazi diren ala ez ikusteko. 2008ko datuen arabera, SPDk 530.700 militante zituen. Kontra, alderdi sozialdemokrataren zuzendaritzak militantziari CDUrekin gobernu osatzearen aldeko kontsulta egin zuenean, 475.000 pertsona zeuden errolatuta. Honenbestez, bost urteren buruan Alemaniako alderdi honek 55.700 galdu egin ditu, SPDren egoeraz jabetzeko datu esanguratsu bat dena.

---

<sup>77</sup> Bi artikulu interesgarri ditugu SPDren militantziari buruzko informazioa ematen digutenak. Lehenengoak 2008ko datuak ematen dizkigu eta bigarrenak 2013koak. Online: [http://www.abc.es/hemeroteca/historico-29-07-2008/abc/Internacional/el-spd-aleman-por-primera-vez-con-menos-militantes-que-la-cdu\\_803496742483.html](http://www.abc.es/hemeroteca/historico-29-07-2008/abc/Internacional/el-spd-aleman-por-primera-vez-con-menos-militantes-que-la-cdu_803496742483.html)  
[http://www.eldiario.es/internacional/socialdemocratas-aprueban-coalicion-Gobierno-Merkel\\_0\\_207179483.html](http://www.eldiario.es/internacional/socialdemocratas-aprueban-coalicion-Gobierno-Merkel_0_207179483.html)

## 3.2. Aldagai Independentek

## 3.2.1. Politikak eta jarduna

Atal teorikoan ikusi dugun moduan, gure lanaren aurreneko hipotesia alderdi sozialdemokratek aurrera eramandako jarduera eta politikekin zerikusia du. Hala, alderdi hauen politikek joera neoliberalak hartu dute nabarmen, ongizatearen aldeko eta politika sozialak baztertzen eta gehiago soziala kaltetuz. Bitartean, gutxiengoaren aldeko jarduna bai eraman direla aurrera, mugimendu sozial berriekin lotzen diren politikak inplementatuz. Gainera, alderdi sozialdemokratak politika hauetan zentratu dira, izaera sozio-ekonomikoetan aurrera pausu bat ez emateko. Hau dena praktikara ekartzeko asmotan, hurrengo lerroetan eta tauletan adierazle batzuk aztertuko ditugu.

Aurreneko hipotesia baieztatzeko, hasiera batean eremu sozio-ekonomikoan kokatu ditzakegun bost adierazle praktikara eramango ditugu eta gutxiengoaren babesean edo jardun postmaterialista eta identitarioekin lotutako beste bi adierazle operazionalizatuko ditugu gerora.

5. Taula:

	<i>Pobreza erlatiboa (%)</i> <sup>78</sup>		<i>Gini Kofizientea</i> <sup>79</sup>		<i>Erreforma laboralak</i>
<b>Espainia</b>	15,9	+1,1	0,346	+0,036	1
<b>Grezia</b>	15,1	+2,2	0,342	+0,011	2
<b>Britainia Handia</b>	10,4	-1,2	0,324	-0,026	3
<b>Alemania</b>	9,1	+0,7	0,301	+0,018	1

Iturria: Nik neuk egin

Taula honetan landuko dugun aurreneko adierazlea Espainiaren, Greziaren, Britainia Handiaren eta Alemaniaren **pobrezia erlatiboa** izango da. Definizio bat egitearren, indize honek herrialde bateko populazioaren ehuneko zenbatak behar

<sup>78</sup> OCDE-ko datuak erabili ditugu taularen zati hau osatzeko. Sarean: <http://www.oecd.org/centrodemexico/estadisticas/>

<sup>79</sup> Eurostat webgunea erabili dugu. Sarean: <http://ec.europa.eu/eurostat>

basikoak izateko ezintasuna duen esan nahi du. Bi urteetako datuak erabili ditugu; alde batetik gaur egun zein mailako pobrezia erlatibo dagoen, eta beste alde batetik alderdi sozialdemokratek herrialde bakoitzean boterean egondako azken legegintzaldiaren lehendabiziko urtea. Hots, Espainian 2004a izan zen urte hori, Grezian, aldiz, 2009.urtea eta Alemanian 2013, azken legegintzaldian CDUrekin koalizioan egon delako. Erresuma Batuen kasuan, 2004ko datua erabiliko dugu informazio faltagatik, Tony Blairren agintearen leheneko urtea 1997a izan zelako.

Pobrezia erlatiboak adierazten digunera pasata, ikus dezakegu Britainia Handian izan ezik, gora egin duela nabarmen indize hau. Gero eta pobrezia erlatibo gehiago dago, batez ere Europako Hegoaldean kokatzen diren Espainia eta Grezian. Espainiak %1,1eko igoera du eta Greziak %2 bat baino gehiago.

Bigarren adierazlea **Gini koefizientea** izango da. Koefiziente honekin ikergaiak diren lau herrialdetan ematen den diru-sarreraren arteko desberdintasunak ikusiko ditugu. Koefizientea 0tik 1era doa, 1 zenbakia erabateko desberdintasuna delarik. Bestetik, pobrezia erlatiboan erabilitako urte berdinarik hautatu ditugu, herrialdearen bilakaera ikusteko eta alderdi sozialdemokraten agintaldiek bilakaera horretan ere influentzia izan duten ikusteko.

Bada, Gini koefizienteak argi usten digu diru-sarreraren koefiziente gora egin duela nabarmen. Aurreko adierazlearekin gertatu zaigun bezala, Britainia Handian izan ezik, Grezian, Espainian eta Alemanian hazi egin da koefiziente hori. Kasu batzuetan gehiago, Espainian (+0,036) bezala, besteetan igoera baxuago bat izan da, esaterako Grezian + 0,011 batekin.

Taulan agertzen diren adierazleekin bukatzeko, **erreforma laboralez** arituko gara segidan. Neurri honekin lortu nahi den helburua zera da: enpresariaren mesedetan, legetan erreformak ezartzea, lan-merkatua malgutzeko. Hau operazionalizatzeko, indize propio bat garatu dugu, izan ere, herrialde batzuetan alderdi sozialdemokratek ez dute zuzenean izaera honetako erreformarik egin, baina zeharka bai babestu egin dituztela. Beraz, indizea horrela egituratuko dugu:

- 1: Alderdi sozialdemokratan, haien ekimenez eta boterean egonda, erreforma laborala egin dituzte.
- 2: Alderdi sozialdemokratak, nahiz eta bere ekimenez ez izan, erreforma horiek babestu egin dituzte.
- 3: Ez dira izaera horretako erreformarik egin.

Gauzak horrela, taulan ikusi dezakegun bezala, Espainian eta Alemanian sozialdemokraten esku erreforma laborala bai eman dira. Adibide moduan, Zapaterok bi egin zituen, 2006an eta 2009an eta Alemanian Schröderren Agenda 2010 daukagu.

Greziari dagokionez, PASOK ez du erreformarik zuzenean egin, baina ND (*Nueva Democracia*) alderdi kontserbadoreak 2012an aurkeztutako babestu zuen. Azkenik, Erresuma Batuan ez dira erreforma laboralik egin, nahiz eta inportantzia gutxiagoko aldaketa legegileak eman.

Artean, taula horretatik kanpo badira beste bi adierazle komentatuko ditugunak. Aurrenekoa aurrera eramandako **privatizazioak** dira. Europako biztanleriak, azken urteetan privatizazio olatu baten testigu izan da, eta gure lau herrialdeak ez dira honen salbuespena izan. Europar Batasunak eta FMI-k krisi ekonomikoa erabili dute privatizazio planak inposatzeko, nahiz eta klase popularrek kontrako iritzia izan<sup>80</sup>. Hala, Europako Estatuaren zorrak erabilia eta hauen bidez xantaia eginez, programa hauek aurrera joan dira.

Privatizazioak nola inposatu direnaren adibide garbiena Grezian daukagu. Urte luzeetan zehar eta hainbat erreskateren izenean, Troikak<sup>81</sup> ondasun publikoen salmenta exijitu du, estatuaren biziraupenaren aldekoa zela esanez. Prozesu honetan entitate juridiko eta finantzarioen papera ere salgarria izan da, Europako erakundeekin batera antolamendu handi bat osatu dutenak. Horrela, PASOK gobernuan egon denean privatizazioak martxan jarri ditu. Post Bank posta zerbitzua, OTE telefonia enpresa eta Salonikako portua ditugu besteak beste honen guztiaren adibide<sup>82</sup>.

Espainia, Alemania eta Britainia Handia ez dira atzean geratzen. Espainiar Estatuko PSOE gobernuan egon denean estatuaren ondasunak saltzearen bidea ere hartu du, batez ere Felipe Gonzalez-en garaian. Gonzalezek 80 privatizazio eragiketa egin zituen<sup>83</sup>, hala nola SEAT, ENASA edo Marsans bidai enpresarena. Gainera, salmenta partzialak ere aurrera eraman zituen, besteak beste Endesa, Repsol edo Argentaria-rena. Alemaniari begira, Schröderrek, aurrekontuen hutsuneak betetzeko privatizazioetara ere jo zuen. 2004ean, Deutsche Telekom eta Deutsche Post enpresaren akzioak saldu egin zituen, 7.100 milioi eurorengatik<sup>84</sup>. Erresuma Batuan, Blairrek gidatzen zuen laborismo berriak ere izaera honetako neurriak erabili zituen.

---

<sup>80</sup> Peters, Matthijs eta Trumbo Vila, Sol (2013). *La industria de la privatización de Europa*. Amsterdam: TNI (Transnational Institute).

<sup>81</sup> Nazioarteko Diru Funtsak, Europako Komisioak eta Europako Banku Zentralak osatzen duten ententea

<sup>82</sup> RTVE.es (2011). *Grecia recorta los sueldos públicos, privatiza sus puertos más importantes y sube los impuestos*. [RTVE.es]. 2011-05-23. Sarean: <http://www.rtve.es/noticias/20110523/grecia-se-aprieta-mas-cinturon-recortes-privatizaciones/434170.shtml>. [Kontsulta-data: 2017-05-21].

<sup>83</sup> Fernández, D. (2014). *Privatizaciones: González abrió el camino, Aznar lo consolidó, ZP no pudo y Rajoy lo intenta*. [20minutos.es]. 2014-06-13. Sarean: <http://www.20minutos.es/noticia/2167021/0/privatizaciones/gobierno/aena-loterias-paradores/>. [Kontsulta-data: 2017-05-21].

<sup>84</sup> Sánchez, Rosalía (2003). *Alemania amplía las privatizaciones de Deutsche Telekom y Deutsche Post*. [ABC]. 2003-11-16. Sarean: [http://www.abc.es/hemeroteca/historico-16-11-2003/abc/Economia/alemania-amplia-las-privatizaciones-de-deutsche-telekom-y-deutsche-post\\_220596.html](http://www.abc.es/hemeroteca/historico-16-11-2003/abc/Economia/alemania-amplia-las-privatizaciones-de-deutsche-telekom-y-deutsche-post_220596.html) [Kontsulta-data: 2017-05-21].



Thatcherren bideari jarraiki, Royal Maila posta zerbitzua, Londreseko Metroa eta Osasun Zerbitzu Nazionalan (NHS) pribatizazioak egin ziren<sup>85</sup>.

Alderdi sozialdemokratek eskuinera mugitu diren azaltzen digun azkeneko adierazlea **paktu politikoak norekin** egin dituzten dugu. Lau herrialde hauetan, kontserbadoreen eta ezker klasikoaren edota berriaren<sup>86</sup> artean akordioaren bat egiteko batzuk ala besteak aukeratu behar izan denean, alderdi sozialdemokratak askotan eskuinarekin lerrokatu dira. Adibide anitz daude hau esplikatzen digutenak. Espainiari dagokionez, azken urteetan aipagarriak izan diren bi aukeratuko ditugu: PSOE eta PP-ren arteko paktua, Konstituzioaren 135. Artikulua zuzenean eta referendumi gabe erreformatzeko eta bigarrenik Pedro Sanchez-ek Ciudadanos-ekin bera presidente egiteko akordiora iristea, Podemosekin paktatu ordez. Greziari begira, PASOke 2012an ND eskuin alderdiarekin hitzarmen bat egin zuten, haiekin batera gobernuan osatzeko eta Samaras (NDko burua) presidente egiteko<sup>87</sup>. Alemanian, antzeko motako akordio bat sinatu zuten SPDk eta CDUk 2013an, gobernu koalizio bat eratuz eta Angela Merkel kantziler bilakatuz<sup>88</sup>.

Erresuma Batuko egoera paktuak egiterako orduan zeharo diferentea da. Herrialde horretan indarrean dagoen gehiengoazko hauteskunde sistemak bi alderdiko sistema bat egotea laguntzen du. Hortaz, zailagoa da beste estatuetan azaldutako antzerako akordioak ikustea. Dena den, badago laboristen eta kontserbadoreen artean alderdi giltzarri bat, liberal-demokratak, bi alderdi handiekin hitzarmenak egiten dituenak.

Ondorengo taulan, **Environmental Performance Index** (EPI) eta **sexu bereko ezkontzen** egoera aztertuko ditugu, bi adierazle hauek gure lau herrialdetan azken urteetan zehar hazi egin diren politika ez materialisten adibide direlako. Gure hipotesian aipatzen den moduan eta behin aztertu dugula politika sozio-ekonomikoetan joera neoliberalak ezarri direla, sozialdemokrazia politika hauen defentsan zuzendu da behin baino gehiagotan. Beraz, bi adierazle hauek Espainiako, Greziako, Britainia Handiko eta Alemaniako ingurumen eta gay-lesbianen egoera nolabait nola dagoen ikusteko aukera emango digute.

---

<sup>85</sup> Seymour, Richard (2012). *Brevísima historia de las privatizaciones en el Reino Unido: 1979-2012*. [Sinpermiso]. 2012-04-22. Sarean: <http://www.sinpermiso.info/textos/brevesima-historia-de-las-privatizaciones-en-el-reino-unido-1979-2012> . [Kontsulta-data: 2017-05-21].

<sup>86</sup> Hau aipatzen dugunean, alde batetik ezker klasikoaren barruan kokatu ditzakegun alderdiak ditugu, hala nola Espainiako IU eta beste alde batetik ezker berriaren aterkiaren barnean sartzen direnak, esaterako Podemos eta Die Linke

<sup>87</sup> Sánchez-Vallejo, María Antonia (2012). *Gracia pacta un Gobierno tripartito*. [ElPaís]. 2012-06-20. Sarean: [http://internacional.elpais.com/internacional/2012/06/20/actualidad/1340178428\\_702848.html](http://internacional.elpais.com/internacional/2012/06/20/actualidad/1340178428_702848.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-21].

<sup>88</sup> Gómez, Juan (2013). Merkel y los socialdemócratas cierran un acuerdo para gobernar en coalición. [El País]. 2013-11-27. Sarean: [http://internacional.elpais.com/internacional/2013/11/27/actualidad/1385529740\\_356310.html](http://internacional.elpais.com/internacional/2013/11/27/actualidad/1385529740_356310.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-21].

**6. Taula**

	<i>Environmental Performance Index (EPI)<sup>89</sup></i>	<i>EPI indizearen 10 urteko bilakaera<sup>90</sup></i>	<i>Sexu bereko ezkontzak</i>
<b>Espainia</b>	79,79	+1,82%	1
<b>Grezia</b>	73,28	+ 6,2%	2
<b>Britainia Handia</b>	77,35	+3,48%	1
<b>Alemania</b>	80,47	+1,89%	3

Iturria: Nik neuk Egina

EPI indizeari dagokionez, lau herrialdeak azkeneko hamar urteetan garapen handia izan dute, azpimarragarriena Greziaren ehuneko 6,2ko hazkundea izanik. Datu nahiko paradoxikoa da, izan ere, aurretik ikusteko aukera izan dugun moduan, sozio-ekonomikoki azken hamar urte horietan Greziak nabarmen egin du txarrera. Aldiz, ingurumenaren babesean kontrakoa. Alemania, Erresuma Batua eta Espainiak ere azken hamarkadako datuak hobetzen dituzte eta mundu mailan hirurak EPI honen aurreneko hamabost postuetan kokatzen dira.

Sexu bereko ezkontzetara pasatuz, indize propio bat sortu dugu. Hala, zerrendatze hau eraiki dugu egoera desberdinak islatzeko:

- 1: Sexu bereko ezkontzak onartzen dira
- 2: Ezkontzak ez dira onartzen, baina hori lortzeko bidean daude pausu desberdinak legezkatzen.
- 3: Ez dira sexu bereko ezkontzak onartzen.

Gauzak horrela, Espainian eta Erresuma Batuan (Ipar Irlandan izan ezik) sexu bereko ezkontzak legezkatuak daude. Are gehiago, Britainia Handian azken urteetako prozesua izan da, 2014an indarrean jarri zelako lege hori. Grezian, ezin da sexu bereko pertsonen arteko ezkontzarik ospatu, baina 2015.urtetik elkarbizitza aukera dago. Hortaz, esan genezake gai honetan aurre pausuak egon direla. Hiru estatu hauetatik beste puntan Alemania dugu, sexu bereko ezkontzarik onartzen ez duena eta 2001etik gai horretan neurri berririk egin ez dituen.

Hortaz, azpialat honetan aztertu ditugun adierazle guztiak arretaz landu eta gero, gure lanaren  $H_1$  hipotesia bete egin dela esateko moduan gaude, nahiz eta Britainia Handian oso nabarmena ez izan. Alderdi sozialdemokratak jardun sozio-

<sup>89</sup> Indize honen datuak bere webgunetik atera ditugu. Sarean: <http://archive.epi.yale.edu/epi/country-rankings>

<sup>90</sup> *Ibid.*

ekonomikoari dagokionez neoliberalismora hurbildu dira eta horren hutsunea betetzeko eta alderdi kontserbakorrez urruntzeko, politika postmaterialistak eta identitarioak erabili dituzte, ingurumenean eta sexu bereko ezkontzetan egin diren aurrera pausuek adierazten diguten moduan.

### 3.2.2. Alderdien Barne egitura

---

Gure marko teorikoaren bigarren hipotesia alderdien barne egituran izandako elite bihurteta daukagu. Aipatu dugun moduan, alderdi sozialdemokratetan *establishment* moduko bat eratu den bitartean, militantziaren papera behera egin du. Fenomeno hau azaltzearren, landuko dugun aurreneko adierazlea *revolving doors*<sup>91</sup>-en existentzia izango da.

Bada, ate birakaria definitzearren, sektore edo administrazio publiko baten langile edo politikari bat enpresa pribatu batera joatean datza. Gainera, askotan enpresa pribatuan egin beharreko lana iraganean landutako arlo berdinekoa da. Horretarako kontratatzen dituzte politikari hauek, lortutako abilezia eta kontaktuak enpresa pribatuetan erabiltzeko, aurreko lanbideko etekinak jasotzen jarraitzeko.

Praktikara eta adibideetara ekarrita, gure lanean protagonista diren lau herrialdeetan esandakoaren adibideak topatu ditugu. Espainian<sup>92</sup>, presidente izandako Felipe Gonzalez dugu sektore publikotik pribatura igarotako pertsona esanguratsuena. Gonzalez Gas Naturalen lan egiten du gaur egun. Ez da bakarra, eta Zapaterorekin ministro izandako Jordi Sevilla eta Elena Salgadok ere ate birakarien modara gehitu dira, Price Waterhouse Coopers (PWC) aholkularitza erakundearen eta Endesan lan egiten dutelarik hurrenez hurren. Erresuma Batura salto egiten badugu<sup>93</sup>, Sevilla bezala PWC-en ere Alan Milburn-ek lan egiten du, Blairren gobernuan osasun idazkari izandakoak. Halaber, aipatu behar dugu Milburn izan zela lehen ikusitako osasun sistemaren privatizazioa gidatu zutenetariko bat. Blairrek modu berean *revolving doors*-etan zer esana izan du, JP Morgan Chase enpresa finantzarioan aholkuari aritu delako. Grezian, Lukas Papademos dugu adibide garbientariko bat. Papademos, Greziako Bankuaren ekonomialari arduraduna eta urte batez Greziako Lehen Ministroa Papandreuren izendapenez izan zena, Goldman Sachs-en aritutakoa da<sup>94</sup>. Bukatzeko,

---

<sup>91</sup> Liburu honetan bikain azaltzen da nola funtzionatzen duten ate hauek: Jones, Owen (2014). *El establishment. La casta al desnudo*. Barcelona: Seix Barral.

<sup>92</sup> Espainiari buruzko informazioa web orri honetatik lortutako da:  
[https://15mpedia.org/wiki/Partido\\_Socialista\\_Obrero\\_Espa%C3%B1ol](https://15mpedia.org/wiki/Partido_Socialista_Obrero_Espa%C3%B1ol)

<sup>93</sup> Armitage, Jim (2015). *PwC's friends keep it well-oiled with taxpayers' money*. [Independent]. 2015-02-06. Sarean: <http://www.independent.co.uk/voices/pwcs-friends-keep-it-well-oiled-with-taxpayers-money-10027575.html>. [Kontsulta-data: 2017-05-21].

<sup>94</sup> Á.R. (2011). *Los hombres de Goldman Sachs toman las riendas de Europa*. [El Confidencial]. 2011-11-16. Sarean: [http://www.elconfidencial.com/economia/2011-11-16/los-hombres-de-goldman-sachs-toman-las-riendas-de-europa\\_602373/](http://www.elconfidencial.com/economia/2011-11-16/los-hombres-de-goldman-sachs-toman-las-riendas-de-europa_602373/). [Kontsulta-data: 2017-05-21].

Alemaniarra begira jartzen baldin bagara Gerhard Schröderrekin topo egingo dugu. Kantziler izateari utzi eta hilabete gutxitara Nord Stream AG enpresaren (gas naturala garraiatzen duena) Zaintza Kontseiluan lan egitera igaro zen. Kontutan izan behar dugu enpresa honek Alemanian zehar gas hodiak eraiki dituela, Errusiatik gasa garraiatzeko. Haren influentzia ezinbestekoa izan zen helburu horretarako.

Bigarren adierazlea **lobby eta interes taldeen** papera dugu. Hauek, alderdi sozialdemokratetan sortu den *establishmentaren* parte izan dira, erabaki guneak sozialdemokraziaren militantziaz aldenduz. Azken hogeitun urtetan, estatuen eta korporazioak ordezkatzeko dituzten *lobbyen* artean erlazioak hazi egin dira, bai Europako instituzioetan eta baita ere estatuen barneko politikan. Gainera, korporatibismo honek estatuen teoria pluralistetan atxikita dauden arazoak gainditzen saiatu dira<sup>95</sup>. Hots, teoria pluralistek dioten moduan, ordezkaritza oinarritutako partaidetzan eliteen arteko borroka bat dago, botere politikoaren bila daudenak. *Lobbyak* horretatik haratago joan dira; gobernuen eraketan influentzia izanez, alderdien dinamiketan eskua sartuz edota bestetan jardun legegilean zer esana edukitzen, besteak beste. Alderdi sozialdemokratak ez dira salbuespena izan, eta hori aztertzea izango da gure helburua.

Interes talde hauen existentzia oso nabarmena da Europar Batasuneko instituzio desberdinetan. Hain handia da, gaur egun 30.000 pertsona zenbatu ditzakegula interes talde hauetan lanean<sup>96</sup>. Estatu mailari begira, nahiz eta ezezagunagoak izan, badira herrialdeetako gobernu eta alderdiei egiten zaizkien presioak. Presio horiek izaera anitzekoak izan daitezke: enpresen izenean aritzen direnak, sektore zehatz batekoak, herrialde baten gobernuordezkatzeko dutenak edota prentsak gauzatzen dituztenak. Honetan zentratuko dugu gure adierazlearen operazionalizazioa, gure lanaren lau herrialdeetan adibideak bilatuz.

Lehendabizi Espainiarekin arituko gara. Bi adibide aipatuko ditugu, alderdi sozialdemokrata gobernuan egon denean influentzia asko lortu zutenak. Aurrenekoa transgenikoen *lobbya* dugu. Datuen arabera, 2008an Europar Batasuneko arta hazi transgeniko guztietatik (100.000 hazi zirela) %80a Espainian zegoen<sup>97</sup>. Honek pisua izan zuen garai horretako Zapatero presidentearengan, eta haren politikak sektore hau hobesteko izan ziren. Bigarren adibidea *lobby* ultrakatolikoa dugu, abortuaren polemikarekin presioa egiten ahalegindu dena. Zapatero gobernuan zegoela presioa egin zuten sexu bereko ezkontzen kontra.

<sup>95</sup> Liebert, Ulrike (2015). *Parliamentary Lobby Regimes*. Universitat Bremen.

<sup>96</sup> Gallego, Javier G. (2014). *Europa al servicio de los lobbies*. [ElMundo]. 2014-05-13. Sarean: <http://www.elmundo.es/internacional/2014/05/13/5372683aca4741b1668b458c.html> . [Kontsulta-data: 2017-05-22]

<sup>97</sup> Rojo Letón, Héctor (2009). *El lobby transgenico en el Gobierno de Zapatero*. [PeriodicoDiagonal]. 2009-03-30. Sarean: <https://www.diagonalperiodico.net/panorama/lobby-transgenico-gobierno-zapatero.html> . [Kontsulta-data: 2017-05-22].

Alemaniar dagokionez, Schröder presidente ohia eta Ernst Uhlau aipatuko genituzke. Lehenengoa enpresa askorentzat lan egiten du, tartean eta nagusiki Errusiako Gazprom, eta bigarrena Deutsche Banken<sup>98</sup>. Biek ala biek influentzia nabarmena dute SPDen. Gainera, eta hau Europa guztian berdin ematen da, Schröderren kasuan ate birakarrien eta presio taldeen arteko konexioak nabariak dira. Alegia, behin alderdia utzita eta esparru pribatura joanda, alderdian presioa egiteko aukera mantentzen dute askok.

Grezian eta Erresuma Batuan berdinarekin topatzen gara. Herrialde grekoan, Europako Batasuneko erakundeek, batez ere Troika osatzen dutenak, politikan influentzia handia dute. Hau frogatzen duen adibide garbi bat daukagu<sup>99</sup>. 2011n, herrialdea erreskate ekonomikoan murgilduta zegoelarik, PASOK alderdiaren Papandreu lehen ministro gisa ordezkatzeko orduan, Europak Lucas Papademos bankaria inposatu zuen, Europako Banku Zentralaren presidenteordea izandakoa. Britainia Handian, bestetik, Alderdi Laboristan influentzia handia Rupert Murdoch handikiaren inperioa dauka, batez ere Blair gobernuan zegoen garaian. Murdoch Blairren aspirazioak babestu egin zituen, eta honen bidez, laborismo berria boterean zegoela, haren interesen aldeko politikak egiten zirela segurtatu zituen<sup>100</sup>. Halatan, Blairrek politikatik aldendu eta gero, Murdochen ondora lan egitera pasa zen.

Azkenik, sozialdemokraziaren baitan elitismoa eratzeko ezinbestekoak **ikasketak non egin diren eta oinordekotza** fenomenoak izan dira. Behin eta berriz idatzi dugun bezala, alderdi sozialdemokraten agintaritza esparruetan pertsona talde bat egonkortu da. Eta horren helburuarekin, *establishment* honek mekanismo zehatzak sortu ditu gailur horretan kontserbatzeko. Honen guztiaren atzean zera dago; masen partaidetzaren balorazio negatiboa, eta eliteek haiei mesede egiten dion sistema politikoaren defentsa sutua<sup>101</sup>.

Grezian Papandreu familiaren kasua dugu. Diktadura amaitu zenetik, familia horretako hiru gizon izan dira lehen ministro, Georgios, Andreas eta George, azken biak PASOK alderdian. Erresuma Batuan, ikasketak non egin elitera iristeko aukerak izan ala ez suposatzen du. Owen Jonesen *El Establishment*<sup>102</sup> liburuan ederto aurkezten den moduan, alderdi laboristaren gehiengoak gero eta nabarmenago eskola

---

<sup>98</sup> Perez de la Cruz, Javier (2014). *Los grupos de presión germanos desde dentro*. [Publico.es]. 2014-01-19. Sarean: <http://www.publico.es/internacional/grupos-presion-germanos.html> . [Kontsulta-data: 2017-05-22].

<sup>99</sup> Robinson, Andy (2011). *Un banquero central, probable sustituto de Papandreu*. [La Vanguardia]. 2011-11-08. Sarean: <http://www.pressreader.com/spain/la-vanguardia/20111108/287410623040636> . [Kontsulta-data: 2011-05-23].

<sup>100</sup> Jones, Owen (2014). *El establishment. La casta al desnudo*. Barcelona: Seix Barral.

<sup>101</sup> Baras, Monserrat. *Las élites políticas*. Universidad Autónoma de Barcelona.

<sup>102</sup> Jones, Owen (2014). *El establishment. La casta al desnudo*. Barcelona: Seix Barral.

pribatuetatik dator. Horregatik, errazagoa da politikan aritzea Oxford edo Cambridgen ikasiz gero, langile klaseko parte baldin bazara baino. Espainia ez da urrun gelditzen. Eskola gutxi batzuetan hezi dira herrialde honetako lider politiko eta ekonomikoak, PSOE zein PPkoak. Eskola guztien artean Madrilen kokatzen den Nuestra Señora del Pilar dugu dudarik gabe inportanteena<sup>103</sup>. Ikasmahai hauetan José Luis R. Zapatero, Alfredo Pérez Rubalcaba sozialdemokratak ikasi dute, baina José María Aznar eta Pío García Escudero popularrak ere. Horrela, txikitatik hezkuntzaren bidez, *lobbyekin* eta *revolving doorsekin* batera, betikotzen dira eliteak alderdi sozialdemokratetan.

Laburbilduz, alderdi sozialdemokratetan eman diren *lobby*, ate birakari eta oinordekotza fenomenoek, sozialdemokrazian elitismo prozesu bat gertatu dela adierazten digute. Hau maiz gazteetatik hazten den prozesua da, alderdi sozialdemokraten botere guneetara iristen diren pertsonak ikasketa zehatz batzuk jaso dutelako, bere bozkatzaileak diren langile klasetik eta klase ertainetik kanpo. Hortaz, gure lanaren bigarren hipotesia (H<sub>3</sub>) bete dela esango genuke.

### 3.2.3. Europa integrazioa, globalizazioa eta krisi ekonomikoa

Europako integrazio desorekatuak, globalizazio prozesuak eta 2008an hasitako krisi ekonomikoak alderdi sozialdemokratetan eragina izan dute. Langile eta ertain klaseak kaltetzen ziren bitartean, sozialdemokraziak ez du asmatu hiru gertakari hauen aurrean irtenbiderik aurkitzen. Hala, hemen kokatzen da gure lanaren hirugarren hipotesia, sozialdemokrazia proiektuak alternatiba falta izan duela. Honenbestez gure egitekoa hiru prozesuetan (integrazioa, globalizazioa eta krisia) hau frogatzeko adierazleak topatzea izango da.

Europaren integrazioarekin hasteko, Europar Batasunak plazaratzen duen euro-barometroa erabiliko dugu Espainia, Grezia, Alemania eta Britainia Handiko biztanleriaren iritzia ezagutzeko. Barometro horren bi galdera erabiliko ditugu, gure adierazle egingo ditugunak: Lehenengoa, **Europar Batasunean nola bizi egiten** den eta bigarrena, **Europar Batasunak zein nolako irudia duen herrialdean** bertan.

---

<sup>103</sup> Rafael, Patricia (2015). *Cómo las élites se perpetúan a través de la educación*. [ElDiario.es]. 2015-10-24. Sarean: [http://www.eldiario.es/sociedad/elites-perpetuan-traves-educacion\\_0\\_444456326.html](http://www.eldiario.es/sociedad/elites-perpetuan-traves-educacion_0_444456326.html). [Kontsulta-data: 2017-05-22].

**7.Taula:**

<i>Nola bizi egiten da EBean?</i>	Ondo	Gaizki
Espainia	68	27
Grezia	44	54
Alemania	74	23
Britainia Handia	58	36

Iturria: 2016ko Urriko Eurobarometro berezia; Europako Etorkizuna.

Taula honetan 1.galderari egin zitzaion emaitzak ikus ditzakegu. Alemanian eta Espainian Europar Batasunean ondo bizi egiten dela irabazi du argi eta garbi, nahiz eta herrialde guztien arteko media hartuta, soilik Alemania kokatzen da gorago. Bestetik, Erresuma Batuan, nahiz eta ondo erantzunak irabazi, gaizkiak badu indarra. Ez da harritzekoa beraz *Brexit*-aren fenomenoak. Muturraren beste puntan Grezia daukagu, gaizkiak irabazi duelarik hamar puntuko diferentziarekin. Europatik jaso duen tratamendu gogorra, erreskate neurri zorrotzak medio, esplikazioa izan daiteke.

**8.Taula**

<i>Zein irudi daukazu EBrekiko?</i>	Positiboa	Neutrale	Negatiboa
Espainia	29	51	19
Grezia	17	36	47
Alemania	37	41	21
Britainia Handia	34	30	32

Iturria: 2016ko udazkeneko Eurobarometroa.

Bigarren galdera honetan, ondorio berdintsuetara iristen gara. Alde batetik, argi dago Greziako biztanleriak Europar Batasuna instituzioa ez dutela atsegin, ia erdiak irudi negatiboa duelako. Bestalde, Espainiako erantzunetan neutralak pisu handia duela ikusi dezakegu. Nahiz eta ikuspegi positiboak irabazi, nahiko portzentaje baxuarekin egiten du. Alemanian eta Erresuma Batuan ehuneko hori handiago da, batez ere Alemanian, baina neutraltasun (Alemanian) eta negatibotasun (B.H.) kopuru altu batekin ere aurkitzen gara.

Alabaina, bi galderen emaitza hauek denboran aztertzea ere komeni da, azken hamarkadetan inportantzia hartu duen kontua delako. Europako Ekonomia Erkidegoa (1957an) sortu zenetik, Europar Batasunaren jaiotzatik (1993) igaroz eta Euroa moneta bakar gisa (2002an) hartzea erabaki zenera arte, Europako biztanleriak instituzio hauei buruzko iritzia okerragotzen joan da. Gure lanean bakarrik 2016ko datuak ekarri ditugu, baina hasieran zeukaten mesfidantza eta irudia kaltetuz joan da. Horrela, Alemaniaren boterea eta influentzia gora egin duen bitartean, beste herrialdeek erabakietan gero eta pisu gutxiago zutela konturatu dira. Eurobarometro desberdinak

honen adibide garbiak dira, Alemanian lortzen direlako Europako egoerari eta iritziari buruzko emaitzarik hoberenak. Aldiz, Grezian topatzen ditugu emaitzarik kaxkarrenak, arraroa ez dena inposatu zaien doikuntzako neurriak aztertzen baditugu.

Horregatik, 1994ko udazkeneko<sup>104</sup> Eurobarometroa erabiliko dugu, iritzi horren bilakaera aztertzeko. Ondorengo taula aurreko 2016koekin konparatzen badugu, konturatu gaitzke Europar Batasunaren gaineko iritzia okertuz joan dela. Batez ere deigarria da Espainia eta Greziako kasuak, iritzi hori asko egin baitu behera. Oso iritzi positiboa izatetik, krisia ekonomikoa piztu zenetik nabarmen negatibora pasa direlako, batez ere Greziako kasuan.

**9.Taula**

	<i>EBren balorazioa. (positiboa, % zenbatak)</i>
Espainia	77
Grezia	81
Alemania	76
Britainia Handia	60

Iturria: 1994ko udazkeneko Eurobarometroa

1994an, lau herrialdeetan Europar Batasuneko parte izatea egokia eta onuragarria zela uste zuten. Erresuma Batua dugu galdera honetan emaitza txarrenak lortu zituenen, baina gaur eguneko *Brexit*-aren gertakariekin konparatzen baldin badugu, emaitza horiek askoz hobeagoak direla ulertu dezakegu. Alemania izango zen gaurko eta lehengo emaitzak alderatuz gehien hurbilduko zirenak. Izan ere, nahiz eta beste estatuekin gertatu den moduan behera egin, Europar Batasunaren aldeko ahotsak orainean eta iraganen positiboak zirelako. Gauzak horrela, ikusi dezakegun bezala Europako barnean bi abiadura hartu dituzte ipar eta hegoaldeak<sup>105</sup>, azken urteetan areagotu dena. XXI. mendearen hasieran, hegoaldearen eta iparraldearen arteko diferentzia (EBri begira) %9koa zen, iparraldeko estatuen onartze maila %50koa zelako eta hegoaldekoa %41. Aldiz, krisi ekonomikoa eta gero, distantzia hori gora egin du, %32an kokatu delarik (%46 iparraldean eta hegoaldean %14ean)<sup>106</sup>.

<sup>104</sup> 1994.urtea aukeratu dugu Europar Batasuna sortu eta Eurobarometroa egin zen aurreko urtea izan zelako.

<sup>105</sup> Europako hegoaldeaz hitz egiten dugunean Txipre, Grezia, Italia, Portugal eta Espainiaz mintzatzen ari gara.

<sup>106</sup> Alonso, Sonia (2013). La fractura democrática en la UE: ¿encaminados hacia la tormenta perfecta?. [ElDiario.es]. 2013-07-21. Sarean: [http://www.eldiario.es/agendapublica/proyecto-europeo/democratica-UE-encaminados-tormenta-perfecta\\_0\\_155034792.html](http://www.eldiario.es/agendapublica/proyecto-europeo/democratica-UE-encaminados-tormenta-perfecta_0_155034792.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-29].



Aurrera jarraituz eta 2016ko Eurobarometrora itzuliz, bi galdera hauek herrialde hauetan Europari begira dagoen iritzia ulertzera hurbiltzen gaituzte. Hori horrela izanda, zein izan da alderdi sozialdemokraten erantzuna? Alderdi kontserbakorrekin batera ibiltzea, eta haiekin paktuak sinatzea. Honen adibiderik gardenena Europako Parlamentuan urteetan zehar eraikita dagoen Koalizio Handia dugu, non sozialdemokratak eta Europako Alderdi Popularrak eserlekuak eta presidentziak banatzen dituzte. Halaber, Greziako eta Espainiako erreskateetan alderdi sozialdemokraten papera ere ikertzekoa da. Zuzenki edo zeharka, baina langile klaseei eta klase ertainei ezarri zitzaizkien neurri gogorrek sozialdemokraziak onartu egin ditu, bestelako proposamenik aurkeztu gabe.

Hurrengo puntuan globalizazioaz arituko gara. Prozesu honen operazionalizazioa egiteko indize bat erabiliko dugu, **KOF globalizazio indizea**. Indize honek globalizazioaren dimentsio ekonomikoa kalkulatzeko aukera ematen digu eta lau dimentsiotan oinarritzen da; herrialdearen ekonomiaren integrazioa mundu mailan, biztanleriaren kontaktuen internalizazio maila, internet erabilera eta sartzeko aukerak eta konpromiso politiko internazionala. Hala bada, 100 izango da kalifikaziorik handiena, hots, aurreko lau dimentsioak guztiz betetzen direnean.

**10.taula:**

<i>KOF indizea</i>	2007	2010
Espainia	82,52	85,71
Grezia	74,94	75,83
Britainia Handia	89,29	80,16
Alemania	82,48	84,16

Iturria: <https://indicedeglobalizacion.wordpress.com/>

Taulan ikusten denez, lau herrialdeetan indizearen hobekuntza handi xamar bat gauzatu egin da, globalizazio prozesuaren indartze eta egonkortze baten moduan kontsideratu dezakeguna. Hala eta guztiz ere, ezin dezakegu ahaztu globalizazioa neoliberalismoaren tresna bat dela gaur egun, berak gidatzen duelako. Globalizazioa ez da ikuspegi kulturaletan soilik egiten, baizik eta bere inguruan eraikitako helburu ekonomikoak dira inportantzia handiena dutenak. Aberatsak aberatsago bihurtzen dira, eta pobreak pobreago. Gainera, potentzia ekonomikoek aurrera eramandako globalizazioa da, haien gizartea munduan zehar hedatuz, horregatik askotan globalizazio baino inperialismo izena jarri zaio<sup>107</sup>.

Bukatzeko, 2008an hasitako krisi ekonomikoari helduko diogu. Gure nahia datu makroekonomikoetatik aldentzea da, horregatik pertsonen situaziora gehiago

<sup>107</sup> Romero, Ricardo eta Tirado, Arantxa (2016) *La clase obrera no va al paraíso*. Madrid: Akal. 70-76.

hurbiltzen diren adierazleak erabiliko dugu krisi ekonomikoa praktikara ekartzeko. Lehenengo adierazlea **BPG per capita** izango da ondorengo taulan agertzen den bezala:

**11. Taula**

<i>BPG per capita</i>	2008	2015
Espainia	101	90
Grezia	93	68
Alemania	117	124
Britainia Handia	109	108

Iturria: Eurostat.

2008ko urtea aukeratu dugu jada komentatu dugun moduan krisiaren hasierako urtea izan zelako. Horrela, krisia nork pairatu duen gogorren ikusteko aukera izango dugu. 100 zenbakia Europako BPG *per capita* media izanik, gaur egun Espainia eta batez ere Grezia horren azpitik nabarmen kokatzen dira, herrialde hauetan krisia gogorragoa izan delako. Aipagarria da Greziaren kasua, zazpi urteetan 25 puntu galdu dituelako. Beste aldean Alemania eta Erresuma Batua kokatzen dira, Europako mediatik gora ditugunak. Are gehiago, Alemaniak bere BPG *per capita* hobetu egin du krisi garai honetan.

Bigarren adierazlea **pobrezia arriskua** izango da. Aurreko taulan egin bezala 2008ko datuak erabiliko ditugu, herrialde bakoitza nola aldatu den pobrezia arriskua konparatzeko.

**12.Taula**

<i>Pobrezia arriskua (%)</i>	2008	2016
Espainia	19,8	22,3
Grezia	20,1	21,4
Alemania	15,2	16,7
Britainia Handia	18,7	16,7

Iturria: datosmacro.com

BPG *per capitan* gertatu bezala, gure lau herrialdeetan bi tendentzia diferente daudela konturatzen gara. Alegia, Europako Hegoaldeko Espainia eta Grezia eta Iparraldeko Erresuma Batua eta Alemania. Bi tendentzien arteko diferentzia handia da, hegoaldeko pobrezia arriskua %22ren inguruan kokatzen delako eta iparraldekoetan %16,5ean. Pixkanaka argitzen doa non izan den krisia indartsuagoa. Alderdi sozialdemokratak eta kontserbadoreak aurrera eramandako politikak eta Europatik etorritako betebeharrak eraman dituzte herrialde hauek egoera honetara.

Azkenik, denbora tarte bat **prekariatateari** eskainiko diogu. Gero eta gehiago enplegu bat izateak ez du bermatzen bititza duin bat izatera eta hau Europan zehar

hedatu den situazio bat da, behin baino gehiagotan horren sustatzaile gobernua izan direlarik. Lan honetan zehar aipatu dugun moduan, Schröderren gobernua XX. mendearen hasieran Alemanian Agenda 2010 programa sortu zuen, non “minijob” izenez ezagutu ziren enplegu prekarioak ezarri ziren. Egoera txarrean, astean 15 ordu lan eginez 400 euro kobratzen diren enpleguak sortu ziren<sup>108</sup>. Erresuma Batuak ere neurri horietara batu egin zen, “zero ordu” kontratuen bidez. Hauen arabera, langileak ez dakizki astean zehar zenbat ordu lan egingo dituen, ezjakintasun handia sortuz. Bestalde, Espainiako datu esanguratsu bat aipatzearren, 2014an indarrean zeuden lan kontratu guztien %24a partziala zen<sup>109</sup>, Poloniaren atzetik European mota honetako kontratu gehien zituen herrialdea zelarik.

Hirugarren hipotesia (H<sub>3</sub>) zeharka bete dela idatzi genezake; Europako hegoaldean kokatzen diren herrialdetan dudarik gabe betetzen da, Britainia Handian eta Alemanian ez erabat. Europako integrazio, globalizazio eta krisi ekonomiko prozesuak alderdi sozialdemokratei aukera eman diete bestelako politikak egiteko eta biztanleria ikusi duen pobrezia eta prekaritate egoeratik ateratzeko. Hau ez da gertatu, eta sozialdemokraziak eskumako alderdiei eskua eman die, alternatibarik eskaini gabe.

### 3.2.4. Hauteskunde sistemak

Lanaren laugarren aldagai independentea hauteskunde sistema dugu. Marko teorikoan esan bezala, Grezia, Alemania eta Espainia, bere diferentziak izanda, sistema proportzionalak dira, Erresuma Batua, aldiz, gehiengozko sistema. Gure lana atal empiriko honetan estatu hauetan ematen den desproporzionaltasuna ikustea izango da. Izan ere, gure ustez desproporzionaltasun maila erabakigarria izango da, hortik tiratuta sozialdemokraziaren krisia eta hauteskunde sistema erlazionatuko dugulako.

Lijphartek<sup>110</sup> 36 demokrazietan ematen den proportzionaltasun falta hau kalkulatu zuen, tartean gure ikergaia diren Europako lau herrialdeak. Autore honek Michael Gallagher-rek proposaturiko formula erabiltzen du:

$$G = \sqrt{\frac{1}{2} \sum (v_i - s_i)^2}$$

**Iturria:** Lijphart (2012)

<sup>108</sup> Sánchez, Rosalía (2011). *¿Qué son los “mini jobs”?*. [El Mundo]. 2011-12-15. Sarean: <http://www.elmundo.es/elmundo/2011/12/15/economia/1323955971.html> . [Kontsulta-data: 2017-05-24]

<sup>109</sup> Eustat-en datuak.

<sup>110</sup> Lijphart, Arend (2012). *Patterns of Democracy, Government forms and Performance in Thirty-six Countries*. . Second edition. Yale University Press/ New Haven & London.

$V_i$  botoen portzentajearen arteko diferentzia izanik eta  $S_i$  ordezkarien portzentajearen arteko aldea izanik, Gallagherrek indize bat proposatuen zuen, estatu diferenteen arteko desproporzionaltasun konparaketak egite aldera. Indize hau herrialde bakoitzean inplementatuta, jakingo dugu zein herrialde den desproporzionatuena eta zein gutxien, haien arteko zerrenda bat eratzeko aukera emango diguna. Zerrendatze hori ondorengo taulan daukagu eginda:

**13.Taula**

	<i>Desproporzionaltasun indizea</i>
Espainia	7,28
Grezia	7,88
Britainia Handia	11,7
Alemania	2,67

Iturria: Lijphart (2012)

Emaitzak garbi adierazten dute, desproporzionaltasun handiena Britainia Handian dagoela, hots gehiengozko sistema dagoen estatuan. Greziak eta Espainiak, nahiz eta desproporzionaltasun maila dezente bat eduki, Erresuma Batutik urrun gelditzen dira. Alemaniak, ordea, lauetatik sistemarik berdintsuena du.

Beraz,  $H_4$  hipotesian esandakoa bete egiten da, partzialki, oraindik ez dugulako krisi agerpena eta proporzionaltasuna lotu. Desproporzionaltasun indizea kalkulatu eta gero, bi gauza argi eta garbi gelditu dira gure lau herrialdeetan. Lehenik eta behin, gehiengozko sistemak askoz proporzionaltasun txikiagoa dutela eta bigarrenik, eta honen erabat lotuta, Britainia Handia desproporzionala dela. Ezin dugu ahaztu, nahiz eta marko teorikoan herrialde bakoitzeko hauteskunde sistema aztertu dugun jada, Britainia Handia indar handia duen fenomeno bat. Kontzeptu hau, gehiengozko sistema askotan gertatzen den moduan, botoa ematerako orduan eragiten duen faktore psikologikoa da<sup>111</sup>. “First past the post” sistemak boto emailea alderdi biko sistemara bideratzen du, hautesleriak zailago duelako hirugarren edo laugarren alderdi bati bozka ematea, uste duelako ez dela aterako edo aukera murrizak dituela. Botoa ematerako orduan, hautesleriak bozka estrategiko bat egiten du maiz, norma elektoralak ekartzen dituen ondorioak kontutan izanda<sup>112</sup>. Sistemak hauteslea bultzatu dezake aukera bat egitera, nahiz eta preferentzia hau benetan bere lehenengoa ez izan. Horrela, lehenengo preferentzia ez den baina eserlekua aukeratzeko probabilitate gehiago duenari botoa ematen zaio batzuetan. Hausnarketa sinplea da, nahiz eta bi handiak ez diren alderdi bati botoa emango nioken, ez diot emango uste dudalako eserlekua lortzeko indarra nahikorik ez duela. Horregatik, desproporzionaltasun indizeak adierazten diguna baino proporzionaltasun gutxiago dago Erresuma Batuan.

<sup>111</sup> Caminal Badia, Miquel (1996). *Manual de Ciencia Política*. España: Tecnos. 343-372.

<sup>112</sup> *Ibid.*

Halatan, Erresuma Batua herrialderik desproporzionalena dela frogatu eta gero,  $H_4$  hipotesiaren arabera Britainia Handian alderdi sozialdemokraten krisi gutxiago nabaritu beharko zen. Hori betetzen den ikusteko ondorioetara joko dugu, baieztapen honek lanaren ondorio nagusira eramango gaituelako.

#### 4.ONDORIOAK

---

Gure lanaren abiapuntua alderdi sozialdemokraten krisia izan da, eta helburu nagusi gisa egoera txar hori esplikatzea izan dugu. Zerk azaltzen du osasun kaxkar honek? zergatik ematen da sozialdemokraziaren krisia? Galdera hauek eta antzeko beste asko erantzutea izan da gure xedea. Bada, lana zentratze eta konkretatze aldera, ikergaia finkatu dugu Europako lau herrialde aukeratzean, hots, Espainia, Grezia, Alemania eta Britainia Handia. Europa Hegoaldeko bi eta Iparraldeko beste bi. Estatu hauek gure bidelagun eginda, sozialdemokraziak bizi duen krisia lantzerara pasa gara.

Atal teorikoan, lehenik eta behin sozialdemokrazia ikusi dugu. Ideologia hau noiz, non, nork eta zergatik sortu eta zein bilakaera izan duen aztertu dugu. Horrela, bere ibilbidearen hasierako urteetan mespretxatua izatetik II. Mundu Gerra eta gero politikan inportantzia nabarmen bat edukitzerara nola igaro den konturatu gara. Halaber, krisia neurtzen ahalegindu gara. Lan honetarako, bost menpeko aldagai izendatu ditugu: hauteskunde babes galtzea, botere egituretako presentziaren bilakaera, afiliatuen gora beherak, alderdi sozialdemokraten indarra ezkerreko alderdi guztiak kontuan hartuz eta *Challenger Partyen* egoera. Bost aldagai hauek azalduko digute krisia zein neurritakoa den.

Bestalde, hurrengo pasuan krisiaren kausak jorratu ditugu. Hau atal teorikoaren muina izan da. Bertan, sozialdemokraziaren egoera azalduko diguten lau aldagai independente teorizatu ditugu, bakoitzetik hipotesi bat atera dugularik. Aldagai independente horiek hauexek izan dira: alderdi sozialdemokraten politikak, barne egitura, kanpo prozesu internazionalak (Europako integrazioa, globalizazioa eta 2008ko krisi ekonomikoa) eta hauteskunde sistema. Hipotesiak hauek izan dira:

**H<sub>1</sub>) Alderdi sozialdemokratek geroz eta agenda sozioekonomiko neoliberalagoa izan, orduan eta osasun kaskarragoa izango dute.**

**H<sub>2</sub>) Alderdi sozialdemokraten botere guneeetan eliteak eta korporazioak ordezkatzen duten *stablishment*-a eta militanten interes eta nahiak talka egin dute.**

**H<sub>3</sub>) Neoliberalismoaren garaipen ekonomiko, ideologiko eta kulturala ematen den bitartean, alderdi sozialdemokratak horretara moldatzera igaro dira, benetako aldaketak behartu eta bultzatu ordez.**

H<sub>4</sub>) **Hauteskunde sistema proportzionalek alderdi hauen krisiaren agerpena laguntzen dute, ordea, gehiengozko sistemek, desproportzionalagoak izanda, kontrakoa eragiten dute, alegia, osasun txar hori oztopatu.**

Hala ere, hipotesi horiek frogatzera pasa gara, eta jardun hori atal enpirikoan egin dugu. Hurrengo taulan operazionalizazio zatian eginiko lanaren laburpen bat ageri da:

**14.Taula:**

	H <sub>1</sub> : Politikak	H <sub>2</sub> : Elitismoa	H <sub>3</sub> : Prozesu globalak	H <sub>4</sub> : Desproportzionaltasuna
Espainia	Bai	Bai	Bai	Ertaina
Grezia	Bai	Bai	Bai	Ertaina
Alemania	Bai	Bai	Erdizka	Txikia
Britainia Handia	Erdizka	Bai	Erdizka	Handia

Iturria: Nik neuk egin

Behin hipotesiak testatu egin ditugula, hipotesien artean konexio bat dagoela topatu dugu. Alegia, sozialdemokraten krisia eta hauteskunde sistemaren proportzionaltasuna elkar eragiten dutela. Britainia Handia adibide hartuta, estatu honetako sistemaren desproportzionaltasun handiak sozialdemokraziaren krisia biguntzen du, taulan ageri den hipotesien operazionalizazioaren emaitzak adierazten diguten moduan.

Beraz, desproportzionalitate handiko hauteskunde sistema duen herrialde batean, sozialdemokraziak krisian sartzeko aukera gutxiago ditu, Erresuma Batuan gertatzen den moduan. Nahiz eta adierazleek erakutsi diguten moduan elitismoaren hipotesia (H<sub>2</sub>) bete egin den, H<sub>1</sub> eta H<sub>3</sub> hipotesiak ez dira modu argi batean betetzen, zeharka konplitzen direlako. Honek ondorio eta hipotesien arteko konexio honetara eramaten gaitu:

**-Alderdi sozialdemokratak krisi sakontasun nabarmenagoa izango dute; politika neoliberalistak eta postmaterialistak egin, elitismo handia eduki eta prozesu globalek sakon jo duenean herrialdea, baldin eta gehiengozko hauteskunde sistema aratz bat ez duenean.**

Hortaz, badirudi egin dugun ikerketarena arabera alderdi sozialdemokrataren krisian eragina dutela aldagai hauek. Sozialdemokrazia krisian dago, bai, baina nabarmenagoa izango da eta modu argiago batean azaleratuko da gehiengozko hauteskunde sistema bat ez duten herrialdeetan.

Alegia, gehiengozko hauteskunde sistemenetan, alderdi sozialdemokraten osasun txarrak ez du adierazpen hain bortitza hauteskundeetan, lehia-kide berriak aurkitzea zaila delako. Berriz, krisi honen benetako sakontasuna alderdi hauen barnean topatzen dugu, hala nola, Alderdi Laboristaren barne hauteskundeetan Corbynek garaile gelditzeak. Hots, gehiengozko hauteskunde sistemak alderdia nolabait “salbatu” duela esan genezake, krisia alderdiaren barne eremuan azaleratzen den bitartean.



## BIBLIOGRAFIA

---

### -Liburuak

---

- Basave, Agustin (2015). *La cuarta socialdemocracia. Dos crisis y una esperanza*. España: La Catarata.
- Caminal Badia, Miquel (1996). *Manual de Ciencia Política*. España: Tecnos.
- Glyn, Andrew et al. (2001). *Social Democracy in neoliberal times: The left and economic policy since 1980*. New York: Oxford University.
- Jones, Owen (2012). *Chavs, la demonización de la clase obrera*. España: Capitan Swing.
- (2015). *El establishment. La casta al desnudo*. Barcelona: Seix Barral.
- Lijphart, Arend (2012). *Patterns of Democracy, Government forms and Performance in Thirty-six Countries*. (Bigarren edizioa). Londres: Yale University Press/ New Haven & London.
- Macridis, Roy C. (1990). *Modern Political systems: Europe*. 7. Edizioa. New Jersey: Prentice Hall.
- Merkel, Wolfgang (1995). *¿Final de la socialdemocracia?: Recursos de poder y política de gobierno de los partidos socialdemócratas en Europa Occidental*. Valencia: Institucio Alfons El Magnanim.
- Paramio, Ludolfo (2012). *La Socialdemocracia maniatada*. Madrid: La Catarata.
- Romero, Ricardo eta Tirado, Arantxa (2016). *La clase obrera no va al paraíso*. España: AKAL.
- Sevilla, Jose V. (2011). *El declive de la socialdemocracia*. Barcelona: RBA Libros
- Urquizu, Ignacio (2016). *La crisis de la socialdemocracia. ¿Qué crisis?*. Madrid: La Catarata.
- Vázquez Puente, Unai et al. (2015). *Munduari so*. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea.

-Artikulu akademikoak eta Txosten teknikoak

---

-Baras, Monserrat. *Las élites políticas*. Universidad Autónoma de Barcelona.

-Caparrós Valderrama, Rafael (2008). *Robert Michels y las teorías elitista-competitivas de la democracia*. Revista Entelequia.

-Hartleb, Florian (2012). *All tomorrow's parties: The changing face of European party politics*. Bruselas: CES.

-Liebert, Ulrike (2015). *Parliamentary Lobby Regimes*. Universitat Bremen.

-Peters, Matthijs eta Trumbo Vila, Sol (2013). *La industria de la privatización de Europa*. Amsterdam: TNI (Transnational Institute).

-Rodríguez Prieto, Rafael (2012). *De la socialdemocracia al socialliberalismo. La socialdemocracia en la encrucijada: declive, renuncias y alternativas*. Universidad Pablo de Olavide de Sevilla.

-Eurobarometro (1994). *Public opinion in the European Community*. [1994ko Abendua].

(2016). *Future of Europe*. European Commission. [2016ko Urria].

(2016). *Public Opinion in the European Union*. European Commission. [2016ko Azaroa].

-Artikuluak

---

-Alonso, Sonia (2013). La fractura democrática en la UE: ¿encaminados hacia la tormenta perfecta?. [ElDiario.es]. 2013-07-21. Sarean: [http://www.eldiario.es/agendapublica/proyecto-europeo/democratica-UE-encaminados-tormenta-perfecta\\_0\\_155034792.html](http://www.eldiario.es/agendapublica/proyecto-europeo/democratica-UE-encaminados-tormenta-perfecta_0_155034792.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-29].

-Armitage, Jim (2015). *PwC's friends keep it well-oiled with taxpayers' money*. [Independent]. 2015-02-06. Sarean: <http://www.independent.co.uk/voices/pwcs-friends-keep-it-well-oiled-with-taxpayers-money-10027575.html> . [Kontsulta-data:2017-05-21].

-Á.R. (2011). *Los hombres de Goldman Sachs toman las riendas de Europa*. [El Confidencial]. 2011-11-16. Sarean: <http://www.elconfidencial.com/economia/2011-11-16/los->

[hombres-de-goldman-sachs-toman-las-riendas-de-europa\\_602373/](#) . [Kontsulta-data: 2017-05-21].

-De Vries, Catherine eta Hobolt, Sara (2015). *Challenger parties and the decline of the European left*. [Policy Network]. 2015-12-02. Sarean: [http://www.policy-network.net/pno\\_detail.aspx?ID=5025&title=Challenger+parties+and+the+decline+of+the+European+left](http://www.policy-network.net/pno_detail.aspx?ID=5025&title=Challenger+parties+and+the+decline+of+the+European+left) . [Kontsulta-data 2017-05-16].

-Eldiario.es (2016). *El Partido Laborista de Jeremy Corbyn supera el medio millón de afiliados*. 2016-07-08. Sarean: [http://www.eldiario.es/politica/Partido-Laborista-Jeremy-Corbyn-afiliados\\_0\\_535096821.html](http://www.eldiario.es/politica/Partido-Laborista-Jeremy-Corbyn-afiliados_0_535096821.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-16]

[2] (2013). *Los socialdemócratas alemanes aprueban formar una coalición de Gobierno con Merkel*. 2013-12-14. Sarean: [http://www.eldiario.es/internacional/socialdemocratas-aprueban-coaliciacion-Gobierno-Merkel\\_0\\_207179483.html](http://www.eldiario.es/internacional/socialdemocratas-aprueban-coaliciacion-Gobierno-Merkel_0_207179483.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

-Etchemendy, Sebastián (2016). *La rendición de la socialdemocracia europea y el Brexit*. [ElViejoTopo]. 2016-08-02. Sarean: <http://www.elviejotopo.com/topoexpress/la-rendicion-de-la-socialdemocracia-europea-y-el-brexit/>. [Kontsulta-data: 2017-05-16].

-Fernández, D. (2014). *Privatizaciones: González abrió el camino, Aznar lo consolidó, ZP no pudo y Rajoy lo intenta*. [20minutos.es]. 2014-06-13. Sarean: <http://www.20minutos.es/noticia/2167021/0/privatizaciones/gobierno/aena-loterias-paradores/> . [Kontsulta-data: 2017-05-21].

-Fraser, Nancy (2017). *El final del neoliberalismo “progresista”*. [Sinpermiso.info]. 2017-01-12. Sarean: <http://www.sinpermiso.info/textos/el-final-del-neoliberalismo-progresista> . [Kontsulta-data: 2017-05-16]

-Gallego, Javier G. (2014). *Europa al servicio de los lobbies*. [ElMundo]. 2014-05-13. Sarean: <http://www.elmundo.es/internacional/2014/05/13/5372683aca4741b1668b458c.html> . [Kontsulta-data: 2017-05-22].

-Garzón, Alberto (2016). *¡Digamos adiós a la izquierda pija!*. [Eldiario.es]. 2016-11-12. Sarean: [http://www.eldiario.es/tribunaabierta/Digamos-adios-izquierda-pija\\_6\\_579602050.html](http://www.eldiario.es/tribunaabierta/Digamos-adios-izquierda-pija_6_579602050.html) . [Kontsulta-Data: 2017-05-16].

-Gómez, Juan (2013). *Merkel y los socialdemócratas cierran un acuerdo para gobernar en coalición*. [El País]. 2013-11-27. Sarean: [http://internacional.elpais.com/internacional/2013/11/27/actualidad/1385529740\\_356310.html](http://internacional.elpais.com/internacional/2013/11/27/actualidad/1385529740_356310.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-21].

-Guillamon, Agustin (2016). *Socialdemocracia*. [Alasbarricadas.org]. 2016-11-02. Sarean: <http://www.alasbarricadas.org/noticias/node/37329> . [Kontsulta-data: 2017-05-16]

-Hillebrand, Ernst (2016). *La crisis de la socialdemocracia europea*. [Nueva Sociedad]. 2016ko urtarrila-otsaila. Sarean: <http://nuso.org/articulo/la-crisis-de-la-socialdemocracia-europea/> . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

-Mourenza, Andrés (2013). *El Pasok intenta recuperarse de mayor crisis de credibilidad de su historia*. 2013-03-03. Sarean: [http://www.eldiario.es/politica/Pasok-intenta-recuperarse-credibilidad-historia\\_0\\_107089454.html](http://www.eldiario.es/politica/Pasok-intenta-recuperarse-credibilidad-historia_0_107089454.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-16]

-Mulholland, Marc (2016). *Cuando Bernstein revisó la "ortodoxia" marxista*. [Sinpermiso.info]. 2016-10-07. Sarean: <http://www.sinpermiso.info/textos/cuando-berstein-reviso-la-ortodoxia-marxista>. [Kontsulta-data: 2017-05-16].

-Nair, Sami (2009). *El dilema del socialismo europeo*. [El País]. 2009-10-13. Sarean: [http://elpais.com/diario/2009/10/13/opinion/1255384813\\_850215.html](http://elpais.com/diario/2009/10/13/opinion/1255384813_850215.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

-Navarro, Vicenç (2010). *El fracaso del nuevo laborismo y del socioliberalismo*. [vnavarro.org]. 2010-05-21. Sarean: <http://www.vnavarro.org/?p=4299> . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

[2] (2010). *La crisis de la socialdemocracia en Europa*. [vnavarro.org] 2010-07-18. Sarean: <http://www.vnavarro.org/?p=13658> . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

[3] (2016). *El abandono del socialismo por la socialdemocracia española*. [Publico.es]. 2016-06-23. Sarean: <http://blogs.publico.es/dominiopublico/17150/el-abandono-del-socialismo-por-la-socialdemocracia-espanola/> . [Kontsulta-data: 2017-05-16]

-Perez de la Cruz, Javier (2014). *Los grupos de presión germanos desde dentro*. [Publico.es]. 2014-01-19. Sarean: <http://www.publico.es/internacional/grupos-presion-germanos.html> . [Kontsulta-data: 2017-05-22].

-Rafael, Patricia (2015). *Cómo las élites se perpetúan a través de la educación*. [ElDiario.es]. 2015-10-24. Sarean: [http://www.eldiario.es/sociedad/elites-perpetuan-traves-educacion\\_0\\_444456326.html](http://www.eldiario.es/sociedad/elites-perpetuan-traves-educacion_0_444456326.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-22].

-Rodríguez Aguilera de Prat, Cesareo (2015). *¿Por qué la socialdemocracia decepciona cuando gobierna?*. [Agendapublica.es]. 2015-05-28. Sarean: <http://agendapublica.es/por-que-la-socialdemocracia-decepciona-cuando-gobierna/> . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

-Robinson, Andy (2011). *Un banquero central, probable sustituto de Papandreu*. [La Vanguardia]. 2011-11-08. Sarean: <http://www.pressreader.com/spain/la-vanguardia/20111108/287410623040636> . [Kontsulta-data: 2011-05-23].

-Rojo Letón, Héctor (2009). *El lobby transgenico en el Gobierno de Zapatero*. [PeriodicoDiagonal]. 2009-03-30. Sarean: <https://www.diagonalperiodico.net/panorama/lobby-transgenico-gobierno-zapatero.html> . [Kontsulta-data: 2017-05-22].

-Romero, Juanma (2016). *El PSOE se deja unos 50.000 militantes por el camino en los últimos ocho años*. [ElConfidencial]. 2016-11-10. Sarean: [http://www.elconfidencial.com/espana/2016-11-10/crisis-psoe-50-000-militantes-ultimos-ocho-anos-desde-2008\\_1287316/](http://www.elconfidencial.com/espana/2016-11-10/crisis-psoe-50-000-militantes-ultimos-ocho-anos-desde-2008_1287316/) . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

-RTVE.es (2011). *Grecia recorta los sueldos públicos, privatiza sus puertos más importantes y sube los impuestos*. [RTVE.es]. 2011-05-23. Sarean: <http://www.rtve.es/noticias/20110523/grecia-se-aprieta-mas-cinturon-recortes-privatizaciones/434170.shtml> . [Kontsulta-data: 2017-05-21].

[2] (2016). *El Parlamento griego aprueba la reforma electoral que elimina el "bonus" al partido más votado*. 2016-07-22. Sarean: <http://www.rtve.es/noticias/20160722/parlamento-griego-aprueba-reforma-electoral-elimina-bonus-partido-mas-votado/1374563.shtml> . [Kontsulta-data: 2017-05-16]

-Sánchez, Rosalía (2003). *Alemania amplía las privatizaciones de Deutsche Telekom y Deutsche Post*. [ABC]. 2003-11-16. Sarean: [http://www.abc.es/hemeroteca/historico-16-11-2003/abc/Economia/alemania-amplia-las-privatizaciones-de-deustche-telekom-y-deustche-post\\_220596.html](http://www.abc.es/hemeroteca/historico-16-11-2003/abc/Economia/alemania-amplia-las-privatizaciones-de-deustche-telekom-y-deustche-post_220596.html) [Kontsulta-data: 2017-05-21].

[2] (2011). *¿Qué son los "mini jobs"?*. [El Mundo]. 2011-12-15. Sarean: <http://www.elmundo.es/elmundo/2011/12/15/economia/1323955971.html> . [Kontsulta-data: 2017-05-24].

-Sánchez-Vallejo, María Antonia (2012). *Gracia pacta un Gobierno tripartito*. [ElPaís]. 2012-06-20. Sarean: [http://internacional.elpais.com/internacional/2012/06/20/actualidad/1340178428\\_702848.html](http://internacional.elpais.com/internacional/2012/06/20/actualidad/1340178428_702848.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-21].

-Seymour, Richard (2012). *Brevísima historia de las privatizaciones en el Reino Unido: 1979-2012*. [Sinpermiso]. 2012-04-22. Sarean: <http://www.sinpermiso.info/textos/brevsima-historia-de-las-privatizaciones-en-el-reino-unido-1979-2012> . [Kontsulta-data: 2017-05-21].

-Sierra, Julio (1979). *La transformación de la socialdemocracia alemana desde el abandono del marxismo*. [El País]. 1979-11-27. Sarean: [http://elpais.com/diario/1979/11/27/internacional/312505213\\_850215.html](http://elpais.com/diario/1979/11/27/internacional/312505213_850215.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-16]

-Suvalski, Vanesa (2008). *El SPD alemán, por primera vez con menos militantes que la CDU*. [Abc.es]. 2008-07-29. Sarean: [http://www.abc.es/hemeroteca/historico-29-07-2008/abc/Internacional/el-spd-aleman-por-primera-vez-con-menos-militantes-que-la-cdu\\_803496742483.html](http://www.abc.es/hemeroteca/historico-29-07-2008/abc/Internacional/el-spd-aleman-por-primera-vez-con-menos-militantes-que-la-cdu_803496742483.html) . [Kontsulta-data: 2017-05-16].

#### -Youtube

---

- Fort Apache. [HispanTV]. *Extrema derecha: Surgen los monstruos*. [Bideoa]. Sarean: <https://www.youtube.com/watch?v=z7KijCkU-a8>

-Fort Apache. [HispanTV]. *Jeremy Corbyn, ¿nuevo laborismo?*. [Bideoa]. Sarean: <https://www.youtube.com/watch?v=Q586e9Fmf70>

-Fort Apache. [HispanTV]. *La Izquierda Europea*. [Bideoa]. Sarean: <https://www.youtube.com/watch?v=35z20k79fIl>

#### -Webguneak

---

-Environmental performance Index. Country Rankings. [Online]. [Kontsulta-data: 2017-05-22]. Sarean: <http://archive.epi.yale.edu/epi/country-rankings>

-Eurostat. [Online]. [Kontsulta-data: 2017-05-16]. Sarean: <http://ec.europa.eu/eurostat>

-Expansión. Datosmacro. [Online]. [Kontsulta-data: 2017-05-18]. Sarean: <http://www.datosmacro.com/>

-Indice de Globalización. [Online]. [Kontsulta-data: 2017-05-22]. Sarean: <https://indicedeglobalizacion.wordpress.com/>

-OCDE Mejores políticas para una vida mejor. Estadísticas. [Online]. [Kontsulta-data: 2017-05-18]. Sarean: <http://www.oecd.org/centrodemexico/estadisticas/>

-15Mpedia. Partido Socialista Obrero Español. [Online]. [Kontsulta-data: 2017-05-21]. Sarean: [https://15mpedia.org/wiki/Partido\\_Socialista\\_Obrero\\_Espa%C3%B1ol](https://15mpedia.org/wiki/Partido_Socialista_Obrero_Espa%C3%B1ol)

